

# ISILIK

PEDAGOGI ALDIZKARIA

9.alea 1987ko ABENDUA





**BILINTX**  
**LIBURUDENDA**

**EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.**

Fermín Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

**Fermin Calbeton 30ean**, euskal liburu eta diska guztiak  
aurkituko dituzue.


**Esterlines 10ean**, Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,  
Literatura, eta abar...., aurkituko dituzue.

**e|kar** s.a.

Esterlines, 10  
Telef. 426319  
DONOSTIA-3

**EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A**

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.  
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....



Argitaratzaile:  
G.I.L.E.

Egileak:  
Irakasle, guraso,  
sikologo, pedagogo  
eta beste

Azala:  
Irakasle Elkarte

Diseinugile:  
Irakasle Elkarte

Inprimaketa:  
Gráficas Lizarra

Konposaketa:  
Lente

Dep. Leg.:  
S.S. 509/82

GIPUZKOAKO  
IKASTOLETAKO  
IRAKASLE  
ELKARTEAREN  
ardurapean.

Oharrak:  
Idazlanak bidali nahi  
dituenak jo beza  
helbide honetara:  
Plz. Amezketan, 12-8º F  
Donostia 20010  
Tfnoa: 455100-22

IRAKASLE ELKARTEA  
EZ DA HEMEN  
AZALDUTAKO  
ERITZIEN ARDURADUN  
EGITEN.



## AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
PAULO FREIRE-REN IRAKASKINTZA GIROAN .....	4
LAXAPENAZ .....	6
EUSKAL AZENTUAZ.....	8
BAGA, EGA, IGA .....	14
MUSIKA.....	16
NEURKETARI BURUZKO LANA .....	18
BERTSOLARITZAREN PLANGINTZA .....	22
PSIKOMOTRIZITATEA .....	25
IRAKURRI, ZER? NOLA? ZERTARAKO?.....	26
EUSKAL HAUR LITERATURA .....	32
HAUR LITERATURAREN TXOKOA .....	36
ANDEREÑOIA .....	42
OLERKIAK.....	46

SALNEURRIA: 300, pzta.

OLENTZERO MAITEA:

0

Berrero ere etorri zait zuri idazteko eguna. Aurten ere doi-doi baina iritsi naiz. Kontu asko esan nahi nizuke baina, ez zait posible izango; zergatik? Ez al dakizu azkeneko berria? Zuri bakarrik esango dizut, begira: 200.000 pta. gutxiago eman dizkit Eusko Jaurlaritzak eta..., lehen urtean birritan ateratzen banintzen paseatzera, hemen-dik aurrera..., ez dakit nola ibiliko naizen, nire izenak dioen beza la ISILIK eta ilunpean egon beharko dut urte guztian.

Hori nahi ote? Ez ba! ez, ez, eta ez! ez naiz isilduko, mozo-  
rroturik bada ere kalera irtengo naiz, eta kotxez ezin bada, oinez.

Erdi nigarrez hasi naiz baina, itxoin piska bat malkoak lehor-  
tzeko..., baina ez zaitut tristatu nahi..., ale! ni ere poztu naiz!  
Eta orain nire eskaeren zerrenda irakurriko dizut, baina guztiak lor-  
tzeko baldintzaz, e!:

E.


- 1.- Irakasleek beren lanak bidal diezaizkidatela, ni jantzi ahal izateko.
- 2.- Esaiezu ikasleei ere, urtean zehar egin ohi dituz ten lanak niri bidaltzeko.
- 3.- Eta azkenik, ni apaintzeko behar ditudan argazkiak ere bidaliko balizkidate eskertuko nizuke.

Eta oraingoz, besterik ez, hemen eskatutakoa ekartzen saiatu behar duzu, bestela, ez dut lagunik egingo.

Ongi ulertu didazu, ezta? Zeinen ona zaren....

Muxu handi, handi bat, mua!! eta heldu den urtean berriz idatziko dizut beste zerbait eskatuz.

agur eta ongi izan!!!!





## PAULO FREIRE-ren IRAKASKINTZA GIROAN

Paulo Freire-ren ikastaroetan parte hartzearen aukera berezia dastatzen nabil, beraz, ez da nolana hikoia une horietan bizitzen ditudan barne-zirrara baikorrek: irakasle, lagun, ikasle, pedagogo, politikoa, filosofo, aztertzaile, burruka, erosotasuna eta, ...zaletasun guzti horien aurkezlea. Bizipen aberatsen uneak izaten dira ikastaldiak.

Ikasi?, bai noski!..., baina jai giroaren hunkipenean murgilduz bizitzen ditut joan-etorri eta egonaldiok. Ikastetxearen irudi aberats eta sortzailearen eskuratze lasaia aurkitu ditut oraingo honetan. Irakaskintza eta ikaskintza egunerokotasunarekin bat eginaz, bizitzak dituen nahi eta ezinak argitu nahirik, gero, jakintzaren bidez gizaki bezala dugun ahalmenaren indar emankor eta sortzailea barreiatzeko gai naitzela somaturik.

Zenbait erizpideren argikuntza bizi izan dut eta nere nortasunak askotan adierazten duen desorekaren onarpen lasaia ere dastatu dut, benetako ikuspegi aztertzaileak aukeratzen duen itxaropenaren babesean.

Oraingo honetan giro berezia somatzen da ikasgela barruan, Paulo Freire-ren emaztea hil berria da eta, ... denok gaude hunkipenez betetako une artega batetan...

Hurbiltasunaren giro lasaiean hezitzaile honen urkotasun goxoa bere hitzetan agertzen da, bere bizia berrigiten ari dela esaten duenean:

“Bi gizaki elkartzen direnean, egunerokotasunean berregiten joaten dira, benetan elkartzen badira. Horregatik, nik orain nenkiena utzi dut, eta jakintza berriro eskuratzen nabil, bakardadean”.

Eta... hau da, nere ustez, ikastaldi hauetan gelan gertatzen denaren altxor bitxia; elkartzinezkoak diruditen eduki eta bizipenen batasunaren erakartasun sortzailetasuna, bizitzen dugula, alegia, Paulo Freire-ren hitz-jarioratasunaren bidez, hots, biziak ernalduta daraman berrezko dialektikotasunaren bizipenean murgiltzen gaituela, une bakoitzean lortutako aberastasuna, garai bateko txirotasunean oinarritzen dela ohartaraziz; bi egoerok, bilakabide askatu eta sortzailean zehar beharrezkoak direla baieztatuz.

Dialektikotasun honen ildoan, zenbait hitzen eduki eztabaidagarria aztertzen eta argitzen goaz. Galderan oinarritzen den pedagogia giroan gaude, daki-guna eta ezaguna iruditzen zaiguna urratu nahi dugu behin eta berriz, hain bizidetzakoak iruditzen zaizkigun gauzak eta berauei dagozkien gardentasunean onartzearen; hain jakina ez denaren aurkikuntza lanetan gabiltza, beti ere ezagunaren eremuan.

Has gaitzen bada hezkuntza jorrazten. Beraz, bi egoera desberdin topatzen ditugu eremu honetan, irakaskintza bata, eta ikaskintza bestea; biak, irakaslea eta ikaslea, beharrezkoak direlarik eta eginkizun desberdinak bereizten dituztelarik: irakatsi eta ikasi. Irakaskintza, kondairan zehar, ikaslearekin harremanetan eratzen den giza-maila da, tartean gaia dabilkigularik, hau da, edukien egitaraua. Lan hau ez da nolana egiten den zerbait, harreman giro horren barruan baizik, gaia bitarteko dugularik, urrunduz eta hurbilduz ikasbide didaktikoaren laguntzaz. Biak, irakasle eta ikasle, ikastearren edukitik urrunduz eta hurbilduz.

Ikuspegi orokor eta aztertzaile batez begiratzen badugu, ikasgela barruan nola antolatzen diren ikastaldiak egunerokotasunean, zeharo kezkatuta gera gintezke, zeren gehienak berbalditasunean bizitutako ikastaroak bait dira. Honen ez dut esan nahi zenbait gauza buruz ikasi behar ez direnik, noski baietz!, baina ondo ulertu eta jaso ondoren, benetazko irudiaren jabe eginaz, bestela, azaleko irudiaz besterik ez gara jabetuko edukiaren oharmen-eza bizituz.

Hau da beraz, didaktika on baten eginkizuna; irakasle eta ikaslea edukitik urruntze eta hurbiltzearen bizipenaren zehar edukiaren izateaz jabetzea, berbaldiak, hitzak, edukiaren azala direlarik. Hau delarik, egunerokotasunean berregiten den irakaslea.

Ez da egia irakasleak ikasleari nola ikasi behar duen irakasten dionik, zeren inork ez bait diezaioke irakatsi edukiaren agerpenik gabe; matematika, biologia, hizkuntza e.a.-rren bitartez irakasten dugu, gaia tartean dugularik. Hemen oinarritzen da bada, jolas aberasgarri honetan (gaitik urruntze eta hurbiltzean) edukiaren jabe egitera bideratuko gaituen ikasbidea, irakaskintza eta ikaskintza ikasbide batetara mugatzea bakarrik gauzak oker ulertzea dela jakinik, noski. Hezitzailea, edukiaren aurkitze eta berraurkitzearen ildoan bizi da, ikaslea, azken finean, irudimenaren eginkizuna izanez.

Eta nork ikasten du? nor da hezitzaia?, Zer da ikastea?. Biak, irakaslea eta ikaslea hezitzen joan ohi dira, baina hau esaterakoan ez ditut parekatzen, bakoitzak bere bide desberdinak ditu. Irakaslea eta ikastea ez dira gauza bera, nahiz

eta irakasteko ikastetik iragan beharra egon, edota alderantziz.

Harreman aberats honen barruan dago askatasuna eta ahalmenaren ukitu berezia, hezkuntza indar sortzailean bilakatuz. Irakaslea ez da ikaslearen jaun eta jabea (eta alderantziz) baina hezkuntzaren ezaugarri hau (bata bestearen jabe ez izatea, alegia,) ez da pedagogikoa, ezaugarri politikoa, baizik.

Ikastea ezagutzea da, baina ezagutu zer? Zeinen baitan? zeren arabera aurkeztu behar ditut gaien edukiak? Hezkuntza mailan, arlo hau, politikari dago.

Ikastetxea, gizarte-agintarien ugalketa-leku berezia den arren, ez da hori bakarra, hauen erizpide eta ezaguera menperatzaileen aurka lan egin dezakegun lekua ere bada.

Ezagutu beharrean gaude gaiaren edukia, zerbaiten alde jokatuz geroz, noren alde eta noren aurka bideratuta dagoen gure jakintza. Hitz batean, zertarako ikasi eta jakin?

Ez gara alderdirik gabekoak, hots, neutralak. Honek ez dit irakasle-ikasle harreman dialektiko horretan bestearen jabetasuna eta mugak ezartzeko aukerarik ematen, baina ezta derrigorrezko neutralkerian aurkeztu eta jokatze eskubiderik ematen ere. Gizaki jarraitzaileak garenez ez dut alderdi gabeko ikastaldirik onartzen. Hemen datza hezkuntzaren politikotasuna eta politikotasun horren ezaugarria garapenaren ezaugarriaz estalirik dago, hezitzailetasuna etsipenaren ildoan eratzen den gisa, eta garapenaren lorpen itxaropentsua etsipenaren bidetik igaro beharrean dago, igaraldi une honetan, politikotasuna pedagogikoan bilakatuz eta alderantziz.

Ezin dira bata bestera murriztu, eta ezta banandu ere, adibidez: ekintza herrikoietan garaitetasuna burukatu eta ikasgelan etsipena bakarrik landu. Bata bestearen beharrean daude, bakoitzaren eremu berezian dagozkien lorpenak lortzearen.

Irakasle bezala, hezkuntzaren politikotasuna aurkitzen dudanean, politikoa bihurtzen naiz amets politiko batekin batera. Une honetan, berbaldia eta ekintza adostasun bidean bizi beharrean nago; adostasun honen baieztatzea burrukaren bidez lorturikoa izanaz askotan, berbaldia ekintzetan ernaltzen doalarik.

Nere berbaldi eta jokabideen arteko adostasuna, guda aberats bat besterik ez da, adostezinaren ezabatze burruka, hain nereak diren adostasuna eta adostezina. Beraz ez nuke jakingo inoiz zer den adostasuna, adostezinaren nahigabea dastatuko ez banu. Berriro ere dialektikotasunean nabil, elkartezinen arteko erakargarritasuna, sortzailean bilakatuz. Adostasuna lortzeak dakarren burruka eraikigarria lortu nahiean.

Hezkuntza, inguru eta giro zehatz batetan bizi dut, gizarte moeta baten erizpidez ernalduta dagoen jakintza barruan. Zein moetatako jakintza barruan nabilen ezagutzearen beharra daukat, jakintza hau bultzatzen eta indartzen duten giza-mailakoen taldean ez erortzearen, giza-maila menperatzaile honen helburua, beraiek agertzen dituzten erizpide eta jokabideak, jendetzarenak edo herri guztiarenak izango balira bezala aurkeztu bait dituzte.

Benetazko politikotasunaren ondorioa, hezkuntz eremuaren ildoan, jakintza herrikoia lortzea da.


Hezkuntzalaria edertzalea da, edertasuna antzeak daramana, hots, elkar-gaitz irudia duten zenbaiten sortzailetasuna lortzearen poza, bizitzen saiatzen da; jakintsuaren ezjakintasuna; irakasle eta ikaslearen artean ezinbestekoa; ikasbidearen hurbiltasun urruna; ikastearen irakaskintza; irakastearen ikaskintza; hezkuntzaren politikotasuna; politikaren hezitzailetasuna; giza-maila bateko jakintzaren irudi kaxkarraren orokortasuna; jakintza herrikoia orokortasunaren gogoia; e.a...

Artezain gisara, atal guztiekin jolas sortzailearen ildoan, adostezin irudia gaituz, adostasuna eta adostezinaren oreka eztabaidagarria landuz gabiltza gizaki eta gizar tearen eraikuntzan.

#### A. Ugartetxea

**OHARRA.** 1987-3-19ko ikastaldian bizitutako giroaren laburpena da.





Laxapen hitzak hasiera-hasieratik muskuluen laxapena edo lasatzea soilik adierazten du. Egun, zentzu askoz ere zabalagoa hartzen du; denbora berean laxapen mentala edo buru-laxapena ere adierazten duelarik.

Psikoterapia gisa laxapen hitza erabiltzen denean beste definizio hau hartzen du; muskulu eta laxapen mentala lortzeko ariketa egokien bidez, antolatzen den prozedura terapeutikoa edo sendaketa mota.

Laxapenetik hurbilen aurkitzen den psikofisiologi esperientziarik ezagunena yoga da. Yogaren sorrerako aztarnak milaka urte atzeraka joanaz bakarrik aurki daitezke. Halaz ere, egungo espezialistek laxapenari buruzko ikerkeka zientifikoen sorrera XIX mendean kokatzen dute.

Freudek 1892 urtean, hipnosi bidez tratatu ezin zituen paziente edo gaisoak, beste teknika batzu aurkitu aurretik, kontzentrapen teknika erabili zuen.

Laxapen teknika desberdin gehienek iturri bakar bat dute: J.H. Schultz-en "Training Autogène" deitua. Gizaldi erdi bat esperientziak jaso eta aztertzen aritu ondoren, 1912 urte inguruan argitaratua. Schultzek sistematizatu zuen. Laxapen teknika kode zehatzen bidez taxutu, ondorengoek erraz erabiltzeko tresna prestatuz, bide berri bat ireki zuen.

Halaz ere, Schultz-en teknikari zenbait kritika egin izan zaio; laxapen mota horrek hipnosiaren antzeko egoera sortzen duela pertsonarengan; sintomei zuzen eta orden batez aplikatzeko teknika dela; bere ikuspegia pedagogikoa dela; bere morala arrotza. Hala eta guztiz, bere T. A. delakoa enbor trinko batetan bilakatu da eta horri esker laxapen eskola desberdinak sortuz eta ugarituz joan dira.

Azken hogeitun urteotan aurkitzen gara aportazio interesgarriekin.

Adibide bat aipatzekotan, J. Ajuriagerra neuropsikiatra euskaldunak eta bere lankideek egindako lana aipa dezakegu. Aportazio edo ekarpen oso berezia egin dute laxapen teknikan oinarrituz. Argitaratzen "Reeducation psychotonique" izenpean egin dute. Ajuriagerrak laxapena zer den zehazteko definizio hau egiten du: norberaren laxapena, gorputzaren bitartez norberaren berraurkitzea, besteekiko elkarrizketa tonikoaren bidez, eta guzti hori harreman artean bizitutakoaren analisiaren bidez.

J. Ajuriagerrak eta bere taldeak metodo egoki bat taxutzea lortu zuten Frantziako hospital batetan egindako ikerketen esker. Nolazpait ere, Schultz-en teknika eta psikoanalisiaren konzeptu teorikoak kontutan harturik, erlazio ikuspegia barneratuz, hala nola transferentzi nozioa, terapeuta eta pazientearen arte-



## LAXAPENAZ

ko bertopaketa balioztatuz, beti ere gorputza bitarteko dela, sendabide edo errekuiperaketa mota berezi bat osatu dute.

Laxapenaren aukerazko objektua, beraz, gorputza da. Nortasuna tratatzeko bide den heinean behintzat. Subjektuaren lehenengo afektibitate erlazioak gorputzean uzten dute bere marka, gorputzean errepresentatuak gelditzen dira. Ezarketa afektibo nartzisistaren bidez batipat. Honela bada, haurrak errai eta muskuluetako tentsioaren bitartez, sentimen-pertzepzio bidez, inguruaren informazioa bereganatzen du.

Pertzepzioa eta ihardespina edo erantzuna armonian badaude portaera edo jokabidea eratua dago, gatazkatik at. Baina oreka gal daiteke: jasangaitzeko tentsioak erasora edo ekintzara bultzatuz. Subjektua nolazpait ere heldua goa edo nagusiagoa egiten denean tentsioak guztiz menperatzea lortzen ez badu ere, behintzat hazi orde gutxitzea lor dezake. Adierazten ez den tentsioa muskuluetan gelditzea gerta daiteke. Gatazkatik sortutako tentsioak gogapen mailan, hau da, fantasma eta ametsen bidez bare daitezke. Gogapena elkarrizketa barneratua denez, ekintzaren ordeko bilakatzen da.

Esan dugu laxapenaren aukerazko objektua gorputza dela, baina, nolakoa da gorputz hori?

Subjektua laxaketan bere irudiarekin parekatu beharrean aurkituko da. Eta "irudi" hori bere garapen-prozesu historikoaren fruitu da. Ez bakarrik fisiologi-garapenarena, baizik eta hasieratik atsegin konzeptua barne deneko garapen prozesu historikoaren fruitu.

Gorputzaren zenbait zati pribilegiatu edo faboredun dira libidoaren eragina dutelako. Hori dela eta atsegin-desatsegin konzeptuak gorputzari baina gehiago "gorputz irudiari" lotua dago.

Ez da berdina "gorputz-irudia" eta "gorputz-eskema", konzeptu hauetan gehiegi sakondu gabe, laburki esateko honelako zerbait litzateke: Gorputz-irudiak libidoaren eragina hartzen du eta nozio hori fantasma inkontzienteen ingurukoa da. Horregatik nortasun garapen funtzioa edo funtzio estrukturatraillea hartzen du. Sexualitatearekin zer ikusi zuzena duelako. Gorputz-eskema berriz honelatsu definienez gertatzen da: gorputz-eskema bakoitzak bere gorputzaz egiten duen errepresentazio mentala da eta espazioan orientatzeko behar-beharrezkoa da. Sentimenen barru eta kanpoko pertzepzioan oinarritzen delarik.



Laxapen teknikak laxatzera bultzatzzen badu ere, teknika ez da lasatze soil bat lortzeko, gelditze erraz bat egiteko, baizik eta *kontzentrapen eragilea* bilakatzeko. Gorputzaren prekontzientea irudian jarriz, zonalde erotikoetan oinarriturik dauden pultsio edo irriken eszenan jartzea bitarteko dela, hala nola ezarketa-afektibo eta erotikoan eta defentsan dauden indarrak mogi araziz. Guzti hori, laxapen teknikak, subjektua bere "irudia"rekin parekatze lanean jartzen duelako gertatuko da.


Egun, laxapen ariketa sistema 9-10 urtetik aurrera erabil daiteke. J. Bergès neuropsikiatruk haurrentzat teknika egokitu zuenez gero. Talde txikietan nahiz bakarka egin daiteke. Ikertzaileen iritziz ondorio baikorrenak adoleszenteekin jasotzen direla diote. Kontutan hartzen bada, adin horretan gorputz aldaketa nabaria egiten dela, denbora berean nortasun aldaketa eta sexu-garapen garrantzitsuak bizi dituela eta guzti horri lotzen bazaio adoleszenteak bere gogo, desio eta arazoak hitzetan jartzeko duen zailtasuna, erraz ulertzen da gorputza bitarteko dela egiten den hurbilketa, baikorragoa gertatuko dela ondorioak lortzeko mementuan.


Laxapena helburu desberdin eta alor desberdinetan egin ohi da: pertsonalitate gatazkak tratatzeko; adoleszentei bide berriak eskeintzeko eta sendabide bezala erabiltzen denean: konzentratzeko zailtasunak dituzten haur edo pertsona urduriekin, hizmotelekin, tik-nerbio-soak agertzen direnean eta baita inhibizio haundiak agertzen diren kasuetan ere.

Irakaskuntzan, gizartea aldatzen doan heinean, baloreen aldaketa somatzen da. Zer eta nola irakatsi, egun, oso zutik dagoen arazoa da. Ikasle-irakasle arteko harremanak aldatzen ari dira: maisu-anderenok, ikasleekiko harreman hobekuntza prozesuan nortasun arazoarekin topatzen da. Laxapen teknika irakaskuntzan bitarteko interesgarria dela frogatua dute zenbaitzuk. Esparru bat hor dago: eskola. Esperientzia egin nahi duenarentzat bitartekoak ere bai.

Gai teknikoak erabiltzeko garaian ahalegin bat egin beharrean aurkitzen da, bai idazten duena baita irakurlegoa bera ere. Non "relajaciòn" hitza euskaraz idazteko orduan "laxapen" "lasaketa" eta "lasadura hitzarekin aurkitzen bait gara. Gu oraingoz, alde on eta txarretan gehiegi sakondu gabe, hori hizkuntzalariei utzirik, UZEIren hiztegi teknikoari lotu gatzaizkio. Nahiz eta herriaren hizkuntz tradizioan hitz hori baino sartuago edo hurbilago "lasaketa" edo "laxaketa" bera aurkitu.

Inaxi Lazkano





## «EUSKAL AZENTUAZ»

### Ortoepia Baturantz

Ezer baino lehenago hau gogorazi behar: hizkuntza berez eta funtsean *ahozko* kodigo bat denez gero, *Euskara Batuaren* proiektuak ere ezinbestean eman behar dituela *ahoskuntza arauak*; edo-ta, *Fonologia Batua* proposatu behar duela. Alegia, Batuaz mintzatzeko *kodigo* bat.

*Kate segmentalari* berari datzekion arauak eman behar ditu, beraz: fonemen edo segmentuen balio fonetiko ertainak: gehi sandhi-ondoriozko soinu-aldakuntzak.

Eta kate horri lotuta dagoen kate edo izari supra-segmentalari dagozkionaz: labur esanda, *entonazioa eta azentua*.

Hots, sandhien gertaera bera, azentu-unitatearen arazoari hertsiki lotuta agertzen da: «barne-sandhi» noiz eta non dugun erantzun ahal izateko, aurretik «barne» hori noraino den zedarritzatu behar baitugu: alegia, azentu-unitatearen mugak non dauden, bai ezker aldetik, bai eskuin aldetik. Sandhiak mamitzen dituzten fonologi erregelak, behin eta berriz errepikatu denez, azentu-unitateen barruan beti betetzen badira ere, «kanpo-sandhi»etan normalean ez baitira bete ohi.

Euskara Batarentzako Ortoepiaren aintzin-projektu xume honen barruan, dena dela, segmentuei berei zein balio fonetiko ertain eman dakiekeen ez dugu hemen aztertuko. (Ikus, honi buruz, egilearen «Euskal Fonologia»n. Bergarako Euskaltzaindiaren bileretan proposatu zen balio-saila. III Eraskina, 1978).

Azkeneko aldiz errepikatzeko: sandhi-bidezko aldakuntza fonologikoak noiz mamituko diren, eta noiz ez, erabaki aurretik, garbi jarri behar da azentu-unitatea nondik norainokoa den. Alegia, *klitikoak* zein diren.

Kapitulu honetan, euskalki guztiak kontutan hartuz, bai azentu-unitatea, bai klitikoan zerrenda, zehazten saiatuko garenez, kapitulu hau Fonologiaren *osagarria* da; baita baldintza-garria ere; azentu-unitatearen mugak ongi kontutan ez hartzekotan, berez egokiak diren erregela fonologikoez desbideraketa larritara eraman baitzakete.

Euskara Batuan, hortaz, *azentu-unitatea* definitu ondoren, erraza izango da horren barruan *azentuketa* bilatzea: azentu-unitate horretan (+M) elemendu markaturik ez badago, eta entonazio bereziak azentu-mogimendurik ez badu sortzen, euskal azentu-legea ezarri, eta kitto.

Eta, hau bai: euskaraz dauden *maiztasuneko* desberdintasunak, gaztelaniazkoak baino aisa *txikiago* definitzen ditugularik.

Liburuan barrena eman diren arrazoiengatik, Euskara Batuarentzako eredutzat *Mendebaldeko azentu-bidea* hautatu behar dela iruditzen zaigu.

Honetara, *azentu-unitateari* ezarriko litzaiokeen *azentu-erregela nagusia* hau izango litzateke: [+2, -1]; biotan *ezkerraldekoa* nagusi delarik, eta tartean ager daitezkeen *azentu bigarrenkariak* (oihartzunekoak), oinen arauera definituko direlarik.

Berriro ere: *plurala markatua* izango da izen silababakarren eta silababikoen kasuetan. Aditzean ere bide bera hauta liteke; baina arrazoi praktikoengatik ez da egingo: aditzetan, beraz, unitatea markatua ez den ber, [+2, -1]; gehi tartekoak, oihartzun bikotxien arauera.

Euskal *diptongo beheranzkoa* (edo *bokale-laburketa*) batetik, eta *erdararikako azentudun* silaba bestetik, maila bereko marka agertzen direnez:

a)azentuaren aldetik, maila bereko fenomenoak sortzen dituzte euskal *diptongoek* eta *laburketek*, eta erdal jatorrizko *silaba markatuek*;

b)bai *izenaireen* deklinabidean barrena, bai *adizkien* saiean ere, *paradigmatikotasuna* izango da gidari. Bestela esanda, izenaren deklinabide-*atzizkiak*, bai aditz-*atzizkiak* ere, honegatik edo hargatik *markatuak* ez diren ber, *klitiko* dira.

*Ohar bat*, honetaz gero: markarik gabeko sekuentziek, bai (+2) Mendebaltarraren bidez, bai (-2) Ekialdetarraren bidez, posizio bera ematen du azentuarentzat. Adibidez:

iturri .....	Mendeb. (+2,-1).	<b>itúrri</b>
	Ekiald. (-2) .....	<b>itúrri</b>
badator .....	Mendeb. (+2,-1).	<b>badátòr</b>
	Ekiald. (-2) .....	<b>badátòr</b> . Baina:
iturrian .....	Mendeb. (+2,-1).	<b>itúrriàn</b>
	Ekiald. (-2) .....	<b>iturriàn</b>
badakite .....	Mendeb. (+2,-1).	<b>badákité</b>
		(bizkaiera batzutan ez)
	Ekiald. (-2) ....	<b>badakité</b>

Hitz batez: ondorio bera, edo bertsua bederen, lortzen da bi sistemetan *hiru* silabatako azentu-unitateetan; baina luzeagoetan (4,5,6...), ez.

Euskara Batuarentzat (+2, -1) proposatuz gero, hauek genituzke: **itúrri, badátòr, itúrriàn, badákité**.

*Pluralen* bi silabatan barreneko jaitsera onartuz gero, aski segmenturik dagoenetan, (+2, -3) izango genuke: gizonak, itúrri eta eskuin mutuarrean *hiru* silabatako oinak onartuko ditugunez, emákumeak.

Ezkerraldean (+2) azentuketa *eredua* izanik, unitate markatuetan (+1) izango ditugu. Markatuak, hitz batez, Euskara Batuan prototonoak izango dira.

Azentu-unitatea zedarriztatzeko, *klitiko*en zerrenda eman behar dugu.

#### Euskal proklitikoak

*Ba-* (*baiespena*) eta *ez-* (*ezespena*).

Bi atzizkiok, eskuin aldean duten adizkiarekin (trinko zein laguntzaile), unitate bakar bat osatzen dute; eta bai *ba-* hori, bai *ez-* (-M) direnez (=ez-markatuak). Euskara Batua arauerako azentuketa hartuko du unitateak: [+2, -1].

Esan beharrik ez: *ez-*en eskuineko segmentuek, sandhiari dagozkion aldakuntzak jasango dituzte (Ikus «Euskal Fonologia», adibidez). Esate baterako:

ez + bada = **ezpáda**

ez + dakite = **eztákitè**

ez + garelako = **ezkárelakò**

**Ba al-** eta **ez al-** aurrizki anizkunez, bide beretik, **baál-** eta **ezál-**: **baáldakizú?**, **ezáldakizú?**.

**Bá-** eta **ezpá-**, *baldintzazkoak*.

Bi aurrizkiok eskuineko adizkiarekin *unitate bakar bat* osatzen dute. Baina **bá-** markatua denez (laburketa zahar baten ondorioz edo?), unitate konposatuan ere **bá-** horretan doa azentu nagusia.

Adibidez: (baldin) badator = **bádatór**

ez badakite = **ezpádakitè**

**Bait-** eta **ezpait-**

/ai/ diptongoa hor egonagatik ere, aurrizki horiek (-M) dira, ezmarkatuak; baina, hori bai, azentu-unitate bakar bat erazten dute eskuineko adizkiarekin.

*bait-* horri dagozkion aldakuntza fonologikoak gertatzen dira, dena dela: **baitákugù**, **ezpáitakizù**; barne-sandhiak direnez. (Aldakuntzentzat, ikus «Euskal Fonologia»).

Bide beretik **oté** eta **bidé**: **bidédirà**, **otédituztè**.

**Edozein silababakar**, bestalde, (+M) *markatua ez den ber*, adizki baten ezkerretan gertatuz gero, *klitiko* bihur daiteke (klitiko *bihurtu izan da* gaur arte); eta unitate batu horri dagozkion eskema ezar dakioko: [+2, -1]. Adibidez:

— zer dakizu, **zerdákizú?** (Entonazioaz, -1)

— nor dator, **nordátór?**

— hor dago, **ordágò?**

Badirudi, halere, aurreko azentuketa hori hober siagatik, *bi azentu-unitateretikoa* ere onartu behar dela: **zér dakizú?**, **nór datór?**, **ór dagó**. Interferentziaz, askok hobetzat hartua.

Bide beretik, beraz, zenbakari silababakarrekin ere ahoskera *eredua* hau litzateke: **bostórdù**, **seiúrtè**, unitate bakar batetan; gero eta maizago, interferentziaz, hedatzen ari den *bi unitateena*, onartuz: **bóst órdu** (*órdu* prototonoa da), eta <sup>sei</sup> **urté**.

#### Euskal enklitikoak

*Izenaren*, eta izenaireen, *eskuin* aldean erasten diren deklinabide-atzizkiak, Euskara Batuan *enklitikoak* izango dira; eta unitate berrian, lege nagusiaren arauera hartuko dute (ala ez dute hartuko) beren azentua. Betikoa errepikatuz, jakina: unitatean elemendu markaturik ez dagoen ber, eta entonazio bereziak ondorio berezirik ez badakar.

Adibidez: **etxé / etxéà, etxéàn, etxétik, etxérakoàn...**

(M) **báso / básoà,, básoàn, básotik, básoràkoàn...**

**bat-**ekiko mugagabeek, azentu normala hartuko dute; **-bat** enklitikoa denez. Beraz: **etxébàt / etxébatèk, etxébatì, etxébatèn, etxébatetàn,...**

**bát-** zenbakariak, aldiz, azentu-unitate berezia esatzen du; eta bikoteari *bi azentu-unitate* dagozkio: **etxé — bát / etxé — bátek, etxé — bátì, etxé — báten, etxé — bátetàn...**

Hau dela-ta, zenbakariekin lotzen diren atzizki hauek: **-na, -naka, bát-** ekin unitate markatuak osatzen dituzte: **bána-kà, bínakà** bezala; **bána**, etab..

*Aditz-izenak*, horren aditz erroak 2, 3, 4, etab. silaba ditue-nean, [+2, -1] azentuketa hartuko du: **ikústè, erákustè**. Eta deklinabide-atzizkiak *klitiko* direnez, azentu paradigmakoa: **ikústeà, ikústekò, ikústeàn...**; **erákusteà, erákustekò, erákusteàn...**

Bide berberetik *aditz-partizipioa*: **ikúsi / ikúsikò, ikúsirik; erákutsi / erákutsikò, erákutsirik.**

Aditz-erroa, berriz, *silababakarra* denean, bai *aditz-izena*, bai *aditz-partizipioa*, (M+1) *markatuak* dira. Adibidez: **hár / hártzè, hártzekò, hártzetik, hártzeari, hártzèn;** **híl / híltzè, híltzekò, híltzetik, híltzeari, híltzèn...** Eta, era berean: **hártù, hártukò, hárturik; hílkò, hílik.**


Adberbioak, eta antzerako deklinabidea duten deklinagarriak oro, bereziki markatuak ez diren ber, lege orokorraren arauera hartzen dute azentua: **emén, atzó, bi(h)jár, heránegùn, ortík, aráinò.**

**Ohar bat:** bizkaiera eta gipuzkera arretaz aztertuz gero, xehetasun hau bil bide liteke: singularrezko *ergatiboak* eta pluralezko *nominatiboak* silaba *bat edo bitako* unitateetan, gaur ere azentuketa berberekoak izatea (ergatibo pluralaren aurkaritzan). Eta gaurza bera *lekutasunezko* kasuetaraino.

Nolabait esateko: **gizónar(r)í / gízónai** desberdintasuna oraindik aisa bil daitekeen bezala, hau genuke: **gizónak** (jan du), **gizónak** (joan dira) / **gízónak** (jan dute).

Puntu honetaz, beraz, bitasuna proposatu beharko bide da, arrazoi pratikoengatik.

*Hobetsiko* litzatekeen *ereduan*, pluraleko *parte bat* baka-rrik izango litzateke (+1) markatua (eta beheeranzkoa): *ergati-boa, genitiboa, datiboa, tresnazkoa, norentzakoa...* Eta lekuta-sunezkoak eta *nominatiboa markatu gabeak*. Berrito ere: silaba *bat edo bi* dituzten unitateetan.





Onartu egin behar litzateke, dena dela, analogiazko plural paradigmaticoa (nominatiboa eta lekutasunezkoak barne).

Beraz: **harán**

Plurala:

Hobets: **harának, háranek, háranen, háranei, háranek, háranekin, háranentzat**: baina **haránetan, haráneta-ko, haránetatik, haránetara**.

Ontzat: denak, pluralean barrena, **háran**-en gainean eraikiak: **háranak, háranek, háranen**, etab...

Ikus ditzagun orain, sailka, izanak eta izenaireak.

*Silababakarrak*

Diptongatuak, laburtuak edo mailebatuak ez diren ber (bestela esanda, *markatuak ez diren ber*), eskema nagusiari egokituko zaizkio. Singularrean eta mugagabeen [+2, -1]; eta pluralean [+1], eta beherakada, posible delarik.

Adibidez: **hítz** (-M).

Mugagab.: **hítz /hítzék, hitzí, hitzén, hitzéz...**

Singul.: **hítzá / hitzák, hitzári, hitzárèn, hitzáz...**

Plur.: **hítzák (hítzak ere ontzat) / hitzek, hitzei, hitzen, hitzez.**

Eta lekutasunezkoetan:

Hobets.: **hítzétako, hitzétara, hitzétan, hitzétatik.**

Ontz.: **hítzetako, hitzetara, hitzetan, hitzetatik.**

**Oharra:** arrazoi pratikoengatik, analogiko paradigmaticoa guztiz ontzat emateko gertu egon behar genuke.

Silababakar *markatuetan*, mogimendurik ez.

Adibidez: **déi** (diptongatua, M+1).

Mugagab.: **déi / déik, déiri, déiren, déiz... déitan, déitatik...**

Sing.: **déia / déiak, déiari, déiaren, déiaz... déian, déitik...**

Plur.: **déiak / déiek, déiei, déien, déiez... déietan, déietatik...**

*Silababikoak*

Era berean, ezkerreko silaban *diptongorik edo laburketa-rik* ez duten hitzek, edo *mailebatuak* ez direnek, [+2, -1] eskema jarraituko dute singularrean eta mugagabeen; eta (+1) eta beherakada, pluralean. Adibidez:

(-M), **etxé**

Mugb.: **etxé / etxék, etxéri, etxéren, etxéz... etxétakò, etxétatik, etxétàn, etxétara.**

Sing.: **etxéà / etxéàk, etxéari, etxéarèn, etxéaz... etxékò, etxétik, etxéan, etxérà.**

Plur.: **etxéak (hobets) / étxeek, étxeei, étxeen, étxeez... etxéetako, etxéetatik, etxéetan, etxéetara.**

Analogikoak ere onartuz: nom. **étxeak**: lekut.: **étxeetako, étxeetatik, étxeetan, étxeetara.**

(+M), **báso** (=edalontzi).

Mugb.: **báso / bások, básori, básorèn... básotàn...**

Sing.: **básoà / básoàk, básoari, básoarèn... básoàn, básotik...**

Plur.: **básoak / básoek, básoei, básoen... básoetan, básotatik...**

*Hiru, lau etab. silabatukoak*

(M+1) prototono markatuak ez direnak, [+2, -1] eskema jarraituko dute singularrean eta mugagabeen; eta [+2], eta beherakada, pluralean. Adibidez: (-M) **itúrri**

Mugb.: **itúrri / itúrrik, itúrriri, itúrrirèn, itúrriz... itúrritakò, itúrritatik, itúrritàn, itúrritarà.**

Sing.: **itúrrià / itúrriàk, itúrriari, itúrriarèn, itúrriaz... itúrrikò, itúrritik, itúrriàn, itúrrirà.**

Plur.: **itúrriak / itúrriek, itúrriei, itúrrien, itúrriez... itúrrietako, itúrrietatik, itúrrietan, itúrrietara.**

(+M) **bázkari**

Mugb.: **bázkari / bázkarik, bázkariri, bázkarirèn, bázkari-rik... bázkaritakò, bázkaritatik, bázkaritàn, bázkaritarà.**

Sing.: **bázkarià / bázkariàk, bázkariari, bázkariarèn, bázkari-riaz, bázkarikò, bázkaritik, bázkariàn, bázkarirà.**

Plur.: **bázkariak / bákariek, bákariiei, bákariien, bákari-riez... bákarietako, bákarietatik, bákarietan, bákarieta-  
ra.**

**gatic** morfema lotuta idatzi ohi da; baina autonomoa da edo izan da orain arte. Bi ahoskerak onar daitezke: **-gatic** (sing. eta mugagab.), eta **-gatic** tonu apalean, pluralean. Edota, — **gátik**, unitate autonomo gisa.

*Zenbakariak*

Izenaire izanik, edozein izenen antzera azentuztatuko dira. Beraz:

**zazpí / zazpík, zazpíri, zazpírèn, etab.: zazpítakò, zazpítatik, zazpitàn, zazpítara.**

**zázpiak** (analog.) / **zázpiek, zázpiei, zázpien, zázpiez... zázpietako, zázpietatik, zázpietan, zázpietara.**

Zenbakarien beren azentuketa, beraz, hau da: **bát, bí irú, láu, bóst, séi, zazpí, zortzí, bedératzi, hamár, hamáikà, hamábì, hamáirù, hamálàu... hogéi, berrógèi, hirúrogèi, láu-rogèi, e(h)ún** (edo **e.ún**, bisil), **milá.**

**gárren** morfema

Erakusi den bezala, berez lexema bat izanik, eta markatua, — **gárren** azentuketa hobetsi behar litzateke; baina + **garrèn** (-M) ere onartuz. Beraz:

*hirugarrena*: 1/ **irú — gárrenà**, bi unitatetan:

2/ **irúgarrenà**, unitate bakar batez.

**-bat** mugagabeari, beraz, unitateari dagokiona erantsiko zaio. Beraz, inesiboan, **-batetàn** edo **bateàn**. Eta, hortaz, **bateán** eta **bésteán**.



**Silababakar markagabeetan**, desberdintasuna garbi dago:

**bí / bík, birí, birén, bíz... bitákò, bitátik, bitán, bitàrà.**  
**biák / biék, biei, bien, biez... biétako, biétatik, biétan, biétara**

baina:

**séi / séik, séiri, séirén, séiz... séitakò, séitatik, séitàn, séitarrà.**

**séiak / azentu mogimendurik gabe.**

*Erakusleak eta pertson-izenordeak*

Singularrean: (+2, -1); pluralean (+1), eta beherakada.

Adibidez:

**háu / honék, honí, honén, honékin... honétakò, honétatik, honétàn, honétarà.**

**háuek / háuek, háuei, háuen, háuekin... háuetako, háuetatik, háuetan, háuetara.**

Adjektibo erakuslearen eta izenordeen artean seguru aski berandu arte egon den azentu-desberdintasuna, alde batera utziko litzateke Euskara Batuaren Ortoepia honetan.

Bide beretik:

**horí (/h/ hori grafikoa izanik) /horrék, horrí, horrén...**

**hurá / hárk, harén, harí, etab. hartákò, hartátik, hartán...**

*Edutezkoak*

*Ni. Hi. Gu eta Zu-tik* datozenak, markagabe: [+2, -1]:

**ní / ník, nirí, niré, niréztà, nirékin... nigán, nigánà...**

Baina **zúek** pluraletik, (+1) eta behera:

**zúek / zúek, zúei, zúen, zúentzat, zúekin, zúengan...**

Euskara Batuan, beraz, gipuzkera zaharrea bezala:

**niréak** (egin+dú), vs. **níreak** (eróri+díra) (anal.). Era berean: **zurékin** (jóan), vs. **zúekin**.

Eta: **beré** (etxéà), vs. **béren** (etxéà), pl.

*Aditz laguntzaileak* klitiko gisa hartuko du bere azentua; eta, beraz, tokatuko zaion posizioaren arauera hartuko duenez, azentu desberdinak izan ditzake. Adibidez: *hil da = íldà* (*híl*, silababakarra, markatua delako). etorri da = **etórridà**. Bi /dá/ hauek desberdinak izan daitezke azentuaren aldetik; distantzia *bi* silabatukoa denean, are *hirutakoa* ere, oihartzunezko azentuak gehiago markatzen baitu, tarte hori, *hil+da* kasuan bezala, silaba bakar bat dagoenean baino. Ohar honek kasu guztietarako balio du. Bi silabatuko unitateek, honegatik, ia-ia itxura *itsonoa* behar dute izan: gaztelaniazko *no sé* esaldian bezalatsu.

Bide beretik, beraz:

esan dute = **esándutè**

eraman didate = **eráman+dídatè**, tarteak bikotxiak.

eman zioten = **emántziotèn**

ekar dezakete = **ekárdezàketè**

saldu diote = **sáldudiotè** (sál, M+1)

saldu nion = **sálduniòn**

Kontutan har ondoko bi *didate* hauek:

esan didate = **esándídatè**

eraman didate = **erámandídatè**

**Ba-** eta *ez*-klitiko direnez: ez da = **eztá**; badu (bai) = **badú**; ez du = **eztú**; badira = **badírà**, etab.

Bide beretik *bait-*, azentu desberdinak hartuz:

etorri baita = **etórrí+baità**; ez baita etorri = **ezpáità etórrí**.

*Bide beretik aditz trinkoetan:*

badakit = **badákit** (gazt. lo sé bien); ez dakit = **eztákit**;

bazekiten = **bazékitèn**; ez zekiten = **etzékitèn**; badaramatzat = **badáramatzàt**.

Azentuketa desberdinak gerta daitezke morfema berean:

badaki = **badáki**; ez daki = **eztáki**; nork daki = **nortáki**;

; baina Imanol-ek daki = **imánolek daki**.

Aldakuntza bertsuak atzizkiak erantsi ala: **badákizù, badákizulà, badákizulakò, badákizulakoàn...**

**Hitz markatuak**

Prototono markatuak, esan dugunez, hiru motatakoak dira: arrazoi fonologikoengatik lehenengo bietan, eta jatorriarengatik hirugarrenean: a) diptongo beheranzkoa; b) bokale laburketa; c) mailebutza berria.

Hona hemen, beraz, zerrenda hirukoitz bat; nolabait esateko osakizun geldituz.

*Izen eta izenaireak*

*Silababakarrak*

a) **gái, gáu, háitz, háuts, gáin, háur, góiz, láu, séi, gáur...**

b) **dén** (=guztia, edo errelat.); **zén, txár.**

c) **gás.**

*Silababikoak*

a) **áunitz, áurre**, (**átze**, semant. anal.?) **áuzo, éuri, fráide, gáuza, háize, jáio, káiku, láia, léiho, máila, máilu, máistra, máixu, náusi, néurri, óilar, óilo, sáindu, saío.**

b) **jábe, zénbat.**

c) **ántzár, árte, ásmo, báke, básó, bérba, bóta, búlda, géla, góruptz, gúra, hántka, hórma, jénde, jóku, kále, kámpo, káre, kámu, kínu, kírru, kóntu, kórta, kúku, kúma, lánga, lége, léku, lóra, mólle, múrru, órtu, págo, pártte, píke, písu, préstu, pútzu, sóka, tríku, txístu, zéru.**

d) (kakoia ilun) **bákar, bárre, bátzu** (pl. ?). **bátzar, béste, bírki, bízi, díru, élkar, gálde, gíltza, gíro, góna, hámu, jágon, jákin, jóan**, (hiru hauetan /i/ silabikoa izana), **kézka, kórde, kóska, léka, lótsa, málda, málko, móko, músker, néke, néska, órdu, órratz, pílo, púska, séme, táide, tóki, úme.**

Bigarren silaban (+2) diptongo goranzkoa duten hitzek (edo-ta laburketa), pluralerakoan ez dute ezkereranzko mogimendurik jasaten: **mahai, zelai, hodei, miloi**, etab.

Beraz: **zeláiak, zeláiek, zeláiei, zeláien**, etab.

*Markatu eta markagabeen* arteko desberdintasuna, beraz, honela agertuko da. Hauta dezagun *silababiko* pare bat; eta marka dezagun plurala *analogiazko* paradigmaticoan (nolabait esateko, errazenean). Eta hau dugu:

a) (-M) **basó** (=zuhaitzeta).

basó	basóà	básoak
basók	basóák	básoek
basóri	basóari	básoei
basórèn	basóarèn	básoen
basótakò	basókó	básoetakò
basótatik	basótik	básoetatik
basótàn	basóàn	básoetan
basótará	basórà	básoetara



Segidako bi bokaletan azentu nagusia eta bigarrenkaria doazenean (**basóà**, eman dezagun), azkeneko hau *ahuldu* egiten da; eta tarte *bi*, are *hiru*, silabatakoa denean, alderantziz, *azkarrago* gertatzen. Hortaz, **basóà** edo **basókó**, **basóa** eta **basóko** entzungo dira, lehen hurbilketan. **basótarà** edo **basóarèn**, aldiz, **basótarà** eta **basóarèn** balira bezala ahoskatuak.

b) (+M) **báso** (=edalontzi)

<b>báso</b>	<b>básoà</b>	<b>básoak</b>
<b>bások</b>	<b>básoàk</b>	<b>básoek</b>
<b>básori</b>	<b>básoari</b>	<b>básoei</b>
<b>básorèn</b>	<b>básoarèn</b>	<b>básoen...</b>
<b>básotakò</b>	<b>básokò</b>	<b>básoetako</b>
<b>básotatik</b>	<b>básotik</b>	<b>básoetatik</b>
<b>básotàn</b>	<b>básoán</b>	<b>básoetan</b>
<b>básotarà</b>	<b>básoarà</b>	<b>básoetara</b>

Pluralean, beraz, analogiazko errazketa onartzen bada, *desberdintasunik* ez markatuen eta markagabeen artean.

Ohar bera *silababakarrei* buruz: deklinabide erraztuan *desberdintasunik* ez pluralean.

Eta lehengo oharra ere: **hítzek**, **hítzák**, **hítzak**, eman dezagun, ergatiboan. Isotonia handia izanik, tonu-desberdintasun horiek txikiak izango dira. (Kontutan izan, adibidez, Mendebaldeko euskalkietan barrena dagoen aniztasuna: batean denek dirudite (M+1): **hítzek**, **hítzak**, **hítzak**; **beste batzutan mugagabea, teorien kontra, pluralekin doa: hítzák, hítzak**; eta abar. Ohartu den bidean, beraz, funtsezko berdintasuna ez da guztiz ezabatuko; eta *maiztasunen desberdintasunak txikiak dira*).

#### Trisilabikoak

Markatuak ez diren ber, [+2, -1] mugagabeen eta singularren, eta [+2] eta beheakada pluralean.

Adibidez: **itúrri**, **itúrrià**, **itúrriak**. Azentu bigarrenkariaren indarra, silabaren distantziaren arauera aldatuko da. Segidako silabetan *ahula*, tarte 2 edo 3 denean, *gotorrago*.

#### Trisilabiko markatuak, (M+1)

Hauen azentuketa, hortaz, [+1, -1] eta [+1] behera.

Hona hemen batzu:

- áingeru**, **áizkora**, **áitita**, **éuskara** (eta **érdara**, analogiaz), **gé(h)iago**, **káiola**, **óilasko**.
- átsalde**, **bázkari**, **ná(ha)spila**.
- árima**, **árbola**, **bézpera**, **dénbora**, **fábrica**, **féria**, **gánbara**, **gánora**, **hábia**, **líburu**, **mákina**, **médiku**, **ólio**, **párroko**, **prémia**, **sékula**, **zápatu**.
- (beste arrazoiengatik) **ángio**, **árrantza**, **árreta**, **áspaldi**, **báserrri**, **bélarri**, **béstela** (ik. béste), **bítarte**, **égia**, **éroan**, **gáldera**, **gúrari** (ik. gúra), **hódia**, **lámia**, **lótsari** (ik. lótsa).  
Irakurtzea errazteko, eta hizkuntza idatziaren argitasunerako, prototono markatuak *azentu diakritikoz idaztea* proposatzen da: **déi**, **gáu**, **gás**; **séme**, **úme**, **tálde**; **éuskara**, **dénbora**, **sékula**.

«**basoa**», hortaz, (-M), **basóà** litzateke; baina «**básoa**», aldiz, **básoà**.

Era berean «**hítzak**», **hítzák** litzateke; baina «**déiak**», **déiak**. Baldintzazko **bá-**, markatua denez, «**bá**» idatziko da. Eta beraz, «badator» idazten dena, **badátòr** baiespera izango da; eta «**bádator**», berriz, **bádátòr** (baldintzazkoa).

*Plurala markatua* denaz (azentua ezkeraldera silababakarretan eta silababikoetan: denetan analogikoan, nominati-boa eta lekutasunezkoak salbu azentuketa hertsian), marka diakritikoz idatzi beharrik ez dago.

Baina zalantzarik batzu daitezke: «hítzek», eman dezagun **hítzek** izan daiteke, mugagabeen; edo **hítzek**, ergatibo pluralean. Badirudi, halere, ekonomi arrazoiengatik, plurala azentu diakritikorik gabe uztea izan daitekeela egokiena.

(+1) silaban *diptongo beheranzkoa* duten hitz *guztiak* (M+1) direla onartuz gero (inkesta luze batek funtsatu behar luke hau), hauek ere markatzeko arrazoirik ez legoke.

Oraingoz, dena dela, *prototono markatuak oro* azentu diakritikoz idaztea proposatzen da.

**Txillardeg**

Oharra; Artikulu hau, bere Doktore-Tesitik jasoa da.





## «Andereñoak ere ari dituk titulu bila euskara traketsean»

**BAGA:** "ISILIK" aldizkarirako eskatu zitzaidan lantxoia nondik nora bideratu neure buruari hazka ta hazka ari nintzela, hara non datorkidan eskura **ARGIA** astekariaren azken alea eta bertan Lazkao Txikirekin elkarrizketa luzeska.

**ARGIA:** Nola ikusten duk euskareren egoera?

**L. Txiki:** Euskara indartzen ez baduk ez zegok zer eginik. Gurasoek erdera indartzen diate. *Andereñoak ere titulu bila ari dituk euskara traketsean.* Eta umeak biengandik ihesi".

(**ARGIA** 1.170. zbk./87-X-25/39. or.)

Eta aitortu beste erremediorik ez daukat neuk esan nahi nuena gutti gora behera horixe bera zela eta beraz, nahikoa ongi adierazten zutela irakaslegoaren euskalduntzearen inguruko errealitatea:

- Titulu gosea (eta premia) eta horren ondorioak, eta
- Euskara-maila nahikoa traketsa, oraindik ere.

**Horrela adieraz liteke IRALE** planean euskalduntzen ari den irakaslegoaren egoera gordina. Gordinegia, agian? Ez dakit; baina hau litzateke nire lehen irudipena eta erantzuna zuen aldizkariak egin galde moduari: Nola ikusten duk irakaslegoaren euskalduntzea? Bada, horrelaxe.

Nik ez dut hemen kopuru konturik aipatuko; hau da zenbat pasatzen den IRALEtik eta zenbatek lortu duen IGA edota EGA bera. Zifra horiek ere badute beren interesa eta bil daitezke baina gaurkoz behintzat alde batera utziko ditugu, ez bait dut eskura une honetan horrelako estudiorik. Gehiago lotuko naitzaio euskalduntzearen nolakoari; bestela esanda, zer nolako euskalduntzea burutzen da IRALEn? Hemen lortzen duten euskara maila nolakoa da? Eta azken atal batean, nondik jo euskalduntze maila hobearen eta batipat egokiagoaren bila?

### EGA

Aldez aurretik, eta nire arrazoibidea nondik nora doan ezagutzeko, euskalduntze hori zehaztu behar da: Nor da euskalduna? Noiz esan, pertsona bat euskaldundu dela?

Gauza jakina da gure artean EGA mailak adierazten duela euskalduntzearen edukia eta muga; hau da, maila hori lortu duena benetako euskalduntzat jo dezakegu eta beraz pertsona hori gai dela euskaldun batek dituen premia guztiak euskaraz betetzeko. EGAduna euskaldun standarraren adibidea, da ahoz zein idatziz egoera eta zeregin arruntetan euskaraz behar bezala moldatzeko gai dena.

Hori garbi utzirik, hona hurrengo kuestioa: irakaskuntzan arituko denak (OHO, BBB, LH) maila hori behintzat behar al du ala gutxiagorekin ere molda daiteke? Eta areago oraindik: ez ote luke behar maila hori baino gehiagoko zerbait?

Aurrera jo baino lehen, eta hanka sartzeko beldur handirik gabe, esan daiteke

irakaskuntzan arituko denak euskaldun normalak edo standarrak adina jakin behar duela eta beraz EGA tituluak adierazten duen hizkuntz-trebetasun maila bederen behar duela. Eta hortik aurrera, zenbat eta gehiago hobere.

Honelatsu labur genezake eginkizun honetan ari garenon kezka irakasle bategi behar duen hizkuntz prestakuntzari dagokionez:

- a) Irakasleak euskaldun normalaren maila behar du eta aski du hizkuntz trebetasunetan (entzuten, mintzatzeten, irakurtzen eta idazten) baina trebetasun horiek laneko euskarara mugatuz, eskola-munduko hizkerara eta bere gai multzoko hizkera propioa mugatuz.

Hori horrela balitz, EGA berezia (mugatua) litzateke IRALEn helburua. Honek eskatuko luke gaurko IGAREN maila jasotzea eta titulu autonomo izatea, irakaskuntza mundurako benetako balioa lukeen titulu. (gaur gaurkoz, ez bata eta ez bestea; zeren 8. urrats inguruan ematen bait dugu eta bestalde apenas ezer balio duen). IGA=EGA.



b) Irakasleak euskaldun normalak baino hizkuntz maila altuagoa behar du eta beraz, lehendabizi EGA lortu beste guzietan bezala eta gero aurrera jarrai bere lanerako propio behar duen hizkera lantzen eta orduan eskuratuko luke IGA (irakasgaitasuna). Beraz, **EGA + Laneko euskara = IGA**. Kasu honetan IRALERen helburua EGAz gaindi IGAraino iritsiko litzateke eta prozesua luzatuko, noski.

## IGA

Oraingo egoera, ordea, urruti samar dabil helburu horietatik. IRALEk IGA aitortzen dio normalki bertatik pasatako gehiengoari baina titulu horrek apenas ezer balio duen alde batetik eta bestetik 8.urrats inguruan ematen zaie. Eta gero 5 urteko epea daukate EGA eskuratzeke. Horrek zer esan nahi duen? Bat, IGAK ez duela ia deus ere balio, eta bi, hemen benetako titulua EGA dela.

Eta guzti horrek baditu bere ondorioak IRALE barnean ari garenontzat; irakaskuntzan ari den edonork ongi bait daki tituluek duten balioa eta eragina ikasprogrametan eta eguneroko ikasirakaslanean. Garbi esan daiteke titulua (lortuko bada behintzat) edukien programa bat ezarri egiten duela eta programa horrek ikasprozesua baldintzatzen. Gure kasura etorririk, IRALETik pasatzen denak EGA lortu nahi du, han ditu bere begiak tinko ezarriak eta horrek ondorio sinplea dakar: IRALE programak jendea EGArako prestatu behar du. Hori horrela bada, bere ikas-helburuak eta programak horretara bideratu behar lituzke (gutxi gora behera orain egiten duguna baina zerbait luzatuz, 8.urratsetik EGArainoakoa, hain zuzen).

Egoera honen aurrean edonork aitortuko du oraingo IGA tranpa edo itxura betetzeko asmatutako titulu edo maila xelebrea besterik ez dela. Zeren, 8. urrats inguruan dabilena ez bait da oraindik euskara edota euskaraz irakasteko gai; ezin zaio beraz irakasgaitasuna aitortu. Titulua ongi pentsatua dago baina oraindik ez duen beste maila bat eskatzen du horrek.

Bestalde, IRALEko euskara-ekipoaren zeregina bera ere diskutigarria litzateke oraingo egoera hau gainditu ezean. Zeren esan behar bait da gaurregunean 4.urratsa gainditurik hartu eta 8.urrats ingurura eramaten ditugula gure ikasketariak, azkenean EGA bera ere kanpo-euskaltegietan eskuratu behar dutelarik.

## SIGA

Jarrai dezagun, bai.

Gutariko zenbaitek bestela ikusi nahi lituzke gauzak; beste bide batean abiatu ikusi nahi genituzke IRALE programa eta hortan ari garenon ahaleginak.

IRALEk oso argi dauzka bere ikas-helburu orokorrak, azkenak, Hezkuntza Sailak ezarri zizkionetik: Irakaslegoa euskara edota bere gaiak euskaraz behar bezala emateko maila egokira eramane. Hori nola gauzatu?

Hona hemen zenbait iradokizun:

Bat: Benetako maila horren adierazgarri izan behar du IGA tituluak; benetako irakasgaitasunaren aitormena. Ondorioz:

Bi: IGA titulu horrek benetako balioa behar luke irakaskuntzan eta beraz, EGA alde batera utzi.

Hiru: Titulu horrek ikas-helburu espezifikoa eskatzen ditu eta ondorioz ikasprograma propioa.

Lau: Programa eta ikas-helburu horiek Laneko Euskara behar dute oinarri: Eskola-mundukoa, oro har, eta norberaren arlokoa bereziki. Hori bakarrik ez bada ere, hori behintzat bai.

Bost: Guzti horrek eskatzen du **IRALERen eta eskolaren** arteko harreman hestu eta sendoa (gaur gaurkoz ez dagoena; Iralen dauden bitartean eskolarekin ez bait dute inolako loturarik edo harremanik eta etena erabatekoa, nabarmena).

Sei: Horretarako eskola askoz ere gehiago **erabili** behar dugu, ikasle horiek behar duten berezko giroa eta hizkera hor bait daude. Eskolak eskeintzen dituen aukerak gehiago aprobetxatu behar ditugu.

Zazpi: Aukera horiek indarrean jartzeko hona idibide batzuk:


— **Praktikak** martxan jarri: klaseko giroa eta hizkera ez ezik klaustro eta koordinazio-bileretako bera ere jaso ahal izateko.

— **ABT**en inguruan sortzen den dinamika eta giroaz baliatu. IRALEn dauden bitartean norberaren inguruan ematen diren esperientzia berriak guztiak ezagutu behar lituzkete. Oso denboraldi polita da horretarako. Beraz, norbere eskualdean edo lanean ari diren taldeetan kokatzeko aprobetxa liteke.

Bide honek aukera ezin hobea eskeiniko lioke hizkuntza bera ikasteaz gain, eta horrekin batera irakaskuntzan nolabaiteko berziklapena ere egiteko: ikas-teknikak eta metodologia berriak nondik nora doazen jakin eta mundutxo honetan lanean ari diren taldeekin lanean hasi.

Bistan da, hori bideratzeko **eskolak eta ABT**ak beren **ateak ireki** behar dituztela, hots, **aukera** eskeini behar dutela euskalduntzen ari den jendea beren baitan, lan giroan onartzeko.

Beraz, baliteke, aurki, zuen eskoletan ate-joka aritu behar izatea eta ez zapuztu, arren, gure itxaropenak eta ilusioak. Ordura arte.



Juanjo Uranga Seguro  
Donostiako euskara-ekipoan didaktikari



## MUSIKA GAIA, JON LASAREN ESKUTIK DATOR GAURKOAN

### NOIZTIK MUSIKARAKO ZALETASUNA JON?

Hasi baino lehen, ni ez naizela musikalaria edo musikaren bidez bizi dena, argitu nahi dizut. Musika eta bere inguru guztia maite dut eta benetan miresten ditut gaur egunean gure artean musikaren babes eta zutabe diren musikarari guztiak. Musikaz baliatzen naiz nere egunoroko lanetan eta esango dizut nere inguru guztia musikaz orniturik dagoela.

Zure galderari erantzunez, esango dizut, zaletasun hau oso txikitan sortu zitzaidala. Sei edo zazpi urte nituelarik gure herriko kanpai dorrean, gaur eguneko mogimendu eta ritmo ezberdinak jotzen nituen kanpai soinuaren bidez. Lehenengo pausoak kanpaien bidez urratu nituen, geroxeago hasi nintzen abotsaren garrantziaz konturatzen eta gure kantetaz baliatzen. Beranduago hamar edo hamaika urtekin inguruko piano eta organo zaharrek sufritu behar izan zituzten nere hatzen kolpeak eta musikarako nuen zaletasuna.

### AZKEN URTE HAUETAN MUSIKARI DENBORA ASKO EMAN DIOZU. KONTA EZAZU ZER NOLAKO LANA EGIN DUZUN.

Landaberri ikastolan sartu nintzenean, musika ardura hartu nuen. Bost urte haietan konturatu nintzen musikaren benetako garrantziaz eta posibilitateaz. Abotsa lantzen hasi ginen, kanten bilduma, bertsoak, kanta sortu... bide luze eta zabal bat jarri genuen martxan. Abotsarekin batean mogimendua eta erritmoa, gai hau dantzaren bidez lantzen genuen, giro polita eta interesgarria sortuz, batez ere gure gorputzaren zailtasuna eta ezina ikustean. pauso interesgarri bat eman genuen herriko festak lantzen hasi ginenean, adibidez: Eguberria, Donostiako Danborrada, Santa Ageda, Ihauteriak, Udaberria... Sekulako motibazioa sortzen zuten festa hauek egunoroko lanetan. Azkenik flauta eta txistuak solfeoak jakintza garrantzitsuekin ixten genuen gure gaia.

### PASATAKO ZERBAIT BEZALA ARI ZARA KONTATZEN. GAUR EGUN EZ AL DUZU HORRELA LANTZEN?

Azkeneko bost urte hauetan aldaketa batzu izan ditut eta hauen artean musikarena izan da. Musika ez dut ikusten gai bakar bat bezala edo astean behin edo bi aldiz landu behar den gai bat bezala, egunoroko eginkizun bat bezala baizik. Haurrak atsegin du musika, kanta edo dantza. Behar hau betetzeko ezin du musikako egunaren zain egon, egunoro sentitzen bait du behar hori.

### ZER SUPOSATZEN DU ZURE USTEZ MUSIKA LANTZEKO MODU HONEK?

Hitz gutxitan gai hau ez dela bakarrik musikako arduradunaren eskuetan utzi behar baizik eta haurraren heziketaz arduratzen garen guztiok trebe izan behar angula nahi edo behar hori betetzeko.

### MUSIKAKO ARDURADUNA DESAGERT AL DAITEKE?

Ez, oso beharrezkoa ikusten dut, koordinatzaile, animatzaile bezala eta dudarik gabe bere eskuetan egongo da musikako pisurik handiena, baina gaintzekoak berak markatutako biderei ekin behar genioke nahi badugu gure geletan musikaren eragina somatu.

### NOLAKO ONDORIOA USTE DUZU EKAR LEZAKELA HORRELA-KO ANTOLAKETA BATEK?

Ikasle eta Irakasleen arteko harremanak gozatu. Disziplina arazo asko baztertu. Gelari dinamika eta izate modu lasai eta polit bat eman...

### ZER ESKATUKO ZENIOKE IRAKASLEEI GAI HONI BURUZ?

Musikako gaia besteak bezala hartu behar dugula eta denok trebe garela gai hau gure geletara egunoroko eginkizuna bezala emateko.

Dudarik gabe interesgarria da goizean kantaz ekitea egunoroko lanari eta eguerdian edo arratsaldean bertsoz edo

dantzaz bukatzea egunoroko lan gogor eta askotan astun hori.

### IKASTOLATIK APARTE NOLAKO LAN EGITEN DUZU MUSIKARI BURUZ?

Azkeneko urte hauetan ikastaro ugari eman dut. Irakasleen Elkarateak eskatuta, Magisterio eskolan eta batez ere Hezkide eskolaren bidez. Hezkide eskola, atsedenaldirako monitoreak prestatzen dituen eskola da.

### DISKA BAT ERE ATERA DUZU, ZER MODUKO ESPERIENTZIA IZAN DA?

Benetan polita. Lan handia suposatu zuen bainan azkenean atera genuen. Hasiera batean nere asmoa Hezkide eskolarako bildumatxo bat egitea zen, grabazio sinple baten bidez. Geroago IZ diskaetxeok animatu gintuzten orkestazio bat egitera eta diska txukun bat ateratzera. Nere nahia abots arrunten bidez grabatzea zen batez ere nere betiko ideari jarraituz: denok abots ona daukagu, jakina bakoitzak bere neurrian eta moduan. Ikastarotako taldetxo bat bildu ginen Landaberri Ikastolako haur batzuren laguntzarekin eta kaleratu genuen "JOLASEAN NENBILEN" kanonen diska eta zinta.

### NOLAKO HARRERA IZAN DU?

Leku askotan entzuten dira kanon horiek eta ikusten denez pozik kantatzen dituzte gure hurrek. Esan behar dizut hurrek eta ez hain hurrek, oso atseginak bait dira famili giroan kantatzeko batez ere abotsak suposatzen duen jolasagatik.

### AURRERA BEGIRA NOLAKO PROIEKTOAK DITUZU?

Egunoroko lanari egunoro ekin. Orain arteko lanarekin jarraituko dut eta zer esanik ez musikaren laguntzarekin.



**ZERTAZ BALIATZEN ZARA ZURE EGUNOROKO LANETAN ETA IKASTAROETAN?**

Hasieran zenbait ideia oinarrizko ematen ditut:

—Haur denek musikarako gai dira eta bere beharra sentitzen dute.

—Lehenengo urtetan hasiz gero laguntza handia eman lezake idazketa-irakurketa gainditu behar dutenean.

—Musikak harreman berezi bat lorazten du irakasle-ikasle artean, zenbait disziplina arazo arinduz, lasaigarria da, giro alai eta sortzaile bat lortuz.

—Ez zait egokia iruditzen ordu berezi bat ezartzea musikarako. Geuk bilatu behar dugu egokiena, gela aspertua, nekaturia edo tentsioren batekin ikusten dugunean.

—Hezitzaile denok gara gai horrelako musika giro bat gelan ezartzeko, ez da inongo berezitasunik behar.

—Abotsa eta erritmoarekin, txistua edo flautak laguntza eman dezake gelako dinamika lortzen.

—Haurrak berak aurkitu behar du bere musikarako trebetasuna. Hezitzaileak haurrarekin batera abestu, dantzatu, txistua eta flauta jo behar du. Abotsarekin jolastu, erritmo eta instrumentoekin zenbait soinu berri lortu, orkestra eta antzerkitxoa prestatu.

**HEZITZAILEAREN ESKUETAN JAR DITZAKEGUN ERREKURTSOAK:**

**ABOTSAREKIN JOLAS DEZAGUN:** Kancnak, abots bat, bi, hiru edo lau abotsekin jolasteko posibilitatea ematen digu. Kanonekin batera eta banaka edo abots batera urtaroak, aste egunak, haur jolasak, sokarenak eta abar... Atal honek haurraren abotsa hartzen du ardatza, kontutan har dezan abotsak ematen dizkion ahalmenak.

**ERRITMOA-MUGIMENDUA:** Gure gorputza eta berarekin egin dezakeguna ezagutu behar dugu. Ardatzat dantzak hartzen ditugu, herritarrak eta haurrek berek sortuak. Mugimendu errezen bidez ikusten dugu gure gorputza zerbait bizia dela, eta baldartzen joaten dela ez badugu zaintzen.

**ABOTSA ETA ERRITMOAREKIN BATERA,** zenbait aurkezpen lanak egin ditzakegu, Orkestra, Udaberria, Ihauteriak.

**MUSIKA TRESNAK:** Txistua eta Flautarekin alaitasunez beteko ditugu zenbait une astun eta aspergarri. Mugimendu erraz batzuz baliaturik, tresna hauen sekretoak ezagutzen joango gara.

**JON LASA**

**IDAZTEN KOLABORATU NAHI DUTENAK**

IZENA.....

HELBIDEA.....

TELF.....HERRIA.....

GAIA.....

NOIZKO.....



## NEURKETARI BURUZKO LANA

*Legazpiko Haztegi Ikastola*  
1987 Maiatza-Ekaina

### *Aurkezpena*

Gure ikastolan pedagogia operatoria delako esperientzia eramaten saiatzen ari gara duela 5 urte.

Metodoloji aldaketa guztiak zailak dira: aldaketa guztien arrazoiak garbi izan behar dituzu, ikastolan parte hartzen duten elementu guztiak konbenzitu behar dituzu, aurrera eramane nahi duzunaren soportea zientifikoa aurkitu beharra dago...

Neurketaren garapena lantzen hasi ginenean liburu hau aurkitu genuen: "Concepción de la geometría en el niño según Piaget"

Egilea: GET Holloway Argitaletxea: Paidós. Ecuador

Liburu honetan proposatzen diren frogak ikastolako 1.2.3.4. mailetan pasatu genituen. Nabarmena zera da: Haurrak neurketa lantzen hasi aurretik lortu behar dituen gaitasunak bi direla:

- luzeraren iraupena
- unitatearen beharra

## Pasatutako Frogak

### Lehenengo Froga

#### MATERIALA:

Arez betetako bandexa bat  
Etxe ezberdinetako maketak: ikastetxeak, elizak, zubiak...

#### ESKAERAK:

- Emandako elementuen kokapena.
- Etxetik ikastolara egin behar duen bidea marraztu aretan.
- Ikastolako maketari 180° bira eman ondoren, plano egokia izan dedin beste maketak aldatzea eskatu.

### Bigarren Froga

#### MATERIALA:

80 zm osatzen duten 12 bloke.  
80 zm osatzen duten 12 bloke bainan gehiago (Besteak bainan txikiagoak).  
Paperezko neurri ezberdinetako zintak, makilak...

#### ESKAERAK:

- 12 blokeekin egin dugun dorrearen altura berdineko beste dorre bat osatu, bestea baina bi metro urrutiago eta beherago dagoen mahai baten gainean.

#### OHARRAK:

- Haurrari ematen zaizkion blokeak txikiagoak dira kopia bat egiterik izan ez dezan.
- Bi mahaien artean pantaila bat jarriko dugu.
- Errekurtso guztiak agortu dituela ikusi arte ez zaio aholkatuko barilak edo zintak erabiltzea.

### Hirugarren froga

#### MATERIALA:

- Berdinak diren 2 irudi 50 zmtan banaturik.
- Irudi hauen altura bikoitza duen irudia.
- 60 zmtako irekiera gradagarria duen pantaila.
- Bi irudiak elkartzeko ladriloak.
- Irudiak baino altuago den kubo bat.

#### ESKAERAK:

- Nola daude irudi hauek gertu ala urrun bata bestearengandik.
  - Hain gertu edo urrun daude (A-Btik edo B-Atik bidea hatzez adierazten dugula).
- a) Bi irudien artean pantaila itxia dagoela.
  - b) Bi irudien artean pantaila irekita.
  - c) Pantailaren ordez kubo dagoela.
  - d) Ladriluen bitartez elkartu ondoren.
  - e) Irudi baten ordez bere bikoitza dena, jarri.
  - f) Irudi bat 50 zm gorago igotzen badugu.

### Laugarren Froga

#### MATERIALA:

Barila bat eta plastilina eginiko sugea, biak muturren bitartez elkartu daitezkeelarik.

#### ESKAERAK:

Zein da luzeagoa?  
Berdinak direla erantzuten badu, hatzez bien luzera korritu ondoren galdera berbera egiten diogu.  
Berdintasuna mantentzen segituko balu, bi txindurrik bidea egin behar dutela eta zen irudituko litzaiokeen luzeagoa galdezen diogu.  
Azkenik plastilina sugea luzatzen dugu, konparatu eta berriro haserako formara itzuliz galdera errepikatzen dugu.

### Bostkarren froga

#### MATERIALA:

5 zmtako 2 barila

#### ESKAERA:

Barila bat 2 zm aurreratu ondoren ea zein den luzeagoa galdetzen diogu.

### Seigarren Froga

#### MATERIALA:

30-32 poxpolo.  
30 zmetako 2 paper zinta.

#### ESKAERA:

Berdinak diren poxpoloz eginiko 2 hilara aurkezten ditugu.  
Hilara bat aldatu egiten dugu, Hauetako pospolo batzu puskatu korrespondentzi numerikoa puskatzeko.  
Bi hilaretatik zein da luzeagoa?  
Ariketa berdina paperezko bi zintakin.

### Zazpigarren Froga

#### MATERIALA:

Kartulina batetan era ezberdinetan erantsitako paperezko zintak (angelu zuzenak, zorrotzak... eginaz).

#### ESKAERA:

Zinta horiek berdinak, luzeagoak, motzagoak... direla esan ondoren zinta batzu eman eta bere erantzuna egiaztatzeko frogaren bidez, esaten diogu.  
Beste une batetan 3-6 zmko tirak ematen zaizkio. Esperimendatzaileak, pegaturik dagoen zintaren gainean 3 zmko tira bi edo 3 aldiz ezartzen du, eta zintaren gainean oinez doan gizontxo baten pausoak direla adierazten du, eta haurrak berdina egiten jarrai dezala eskatzen du.  
Bukaeran galdera hau egiten dio: Egin duzunak balio al dizu neurri berdinekoa den ala ez jakiteko?

### Zortzigarren froga

#### MATERIALA:

Iltze batzuen artean pottoka bana kordatuta duten pitari zatiak, (posizio ezberdinetan). Erregela, zintak...

#### ESKAERA:

Pitari zati batetan dagoen pottoka mogitu ondoren, berak beste batetan distantzi berdina mogitu dezala eskatzen diogu.  
Egoera hauek jarriko ditugu:

- Hasera berdina eta marra berdinean kokatuta dauden bi segmenturen konparaketa.
- Paraleloak baina haserako posizioa ezberdina da.
- Hasera berdina luzera ezberdinetan.
- Hasera ezberdina luzera ezberdinetan.

### Bederatzigarren froga

#### MATERIALA:

Berdinak diran bi orri txuriak. Erregla, sokak, paperezko tirak.

#### ESKAERA:

Marka ezazu 2. orrian P posizioaren berdinean dagoen puntu bat. Orri bat bestearen gainean jarriko bagenu, puntuak koinziditu beharko lukete.

#### OHARRA:

Orriek mahaiaren gainean duten posizioa.

### P MAHAIA

1. oria.
2. oria.

### JASO DITUGUN ERANTZUNEKIN EGIN DITUGUN TALDEAK (1 zenbakia duena izango litzateke one-na eta azkena txarrena)

#### 1. Ariketa

1. Kokapen eta distantzi egokia.
2. Kokapen eta distantzi egokia bi elementu ez ezik.
3. Arlo batzutan kokapen egokia, arloen arteko erlazioak errespetatu gabe.
4. Kokapen eta distantzi desegokia arlotan jartzen saiatu bada ere.
5. Kokapen eta distantzi desegokia elementu guztiak lerrotan jarrita.

#### 2.

#### Ariketa

1. Neurri handia eta txikia unitate bezala erabiltzeko gaitasuna azaldu dutenak.
2. Neurri handia eta txikia beste neurriekin osatuz.
3. Neurri bat bakarrik (handia edo txikia).

# Neurketari buruzko lana

4. Traslazioa.
5. Kubo handi batetan bi sartzen direla ohartuz.
6. Kopurua zenbatu bainan neurri berdinekoak ohartu gabe.
7. Bistaz, neurketarik gabe.

## 3. Ariketa

- 1a. Distantzia mantentzen du.
- 1b. Norabide desberdinean.
- 2a. A ongi b gaizki.
- 2b. A gaizki b ongi.
3. Dena gaizki.

## 4. Ariketa

1. Plastilina luzeagoa dela estatiko eta mogimenduan.
2. Plastilina luzeagoa dela mogimenduan bakarrik.
3. Berdinak direla.

## 5. Ariketa

1. Mantentzen du.
2. Ez du mantentzen.

## 6. Ariketa

1. Mantentzen du estatiko eta mogimenduan.
2. Mogimenduan bai.
3. Ez du mantentzen.

## 7. Ariketa

1. Unitate baten erabilpenaz ohartzen da.
2. 3-6-9 zmkko neurriak zenbat aldiz sartzen diren segmentoetan konparatuz ondorio egokira iritsi.
3. Zatiak neurriaz segmento zuzenak osatuz eta ondoren hauek konparatuz (propietate transitiboa).
4. Neurri handi batean zatiak osatzen joan, osatutako segmentoak bestekin konparatuz (hau ere transitiboa).
- 5a. Ez zaio unitatearen erabilpena bururatzeko.
- 5b. Ez du 3-6-9 zmkko neurriaz neurketa egitea posible ikusten.
- 6a. Tankeran fijas da.
- 6b. Zatiak kopuruan fijas da.
- 6c. Begiz fijas da.
- 6d. Ertzak parean.
7. Ertzen arteko neurria neurtzen du.
8. Pausoaren adibidea egin ondoren neurketaz ohartzen da.
9. Pausoaren adibidea egin ondoren ez da neurketaz ohartzen.

## 8. Ariketa

1. Mogimendu eta neurketa egokia.
2. Mogimendu egokia eta eta neurketa desegokia.
3. Mogimendu eta neurketa desegokiak.

## 9. Ariketa

1. Bi dimentsioak erabiltzen ditu.
2. Neurri bat bakarrik erabiltzen du.
3. Begiz egiten du.

## HASERA ETA ERDI ZIKLOETAN NEURKETARI BURUZ EGINDAKO FROGAREN ONDORIOAK

Ariketa bakoitzean ematen diren jokabideak hauek dira:

### 1. Ariketa

- Neurketa neurri berdina duenean bakarrik posible ikustea.
- Neurketa, neurtu behar duzunaren baina neurri handiagoz egitea bakarrik posible ikustea.
- Neurri txikiago bat erabiltzeko gaitasuna, baina ez unitate bat bezala beste batez osatuz baizik.
- txikiago bat unitate bezala erabiltzeko gaitasuna.

### 2. Ariketa

- Bi gauzen arteko distantzia, tartean objektu berri bat jartzen dugunean, mantentzen ez dutenean, ez dute espazioa osotasunean hartzen gauzak eta hauen arteko erlazioak barne daudelarik. Ez dira gai bi gauzen arteko distantzia mantentzeko hirugarren elementu bat tartean jartzen dugunean  $AB=BA$  errebertsibilitatea egiteko gaitasuna berriz gauzak berdinak direnean ala parean jarrita daudenean bakarrik azaltzen dute batzuk.

### 3. Ariketa

Haurrak, ariketa honetan, erruan erortzea ertzetan zentratzean datza, luzeera ertzen arabera kontsideratuz.

### 4. Ariketa

Ariketa honetan luzera ez mantentzea bi ertzak une berean kontutan ez izatean datza.

### 5. Ariketa

Tankeraren aldaketak eta egindako zatiak alde batetik eta ertzetan zentratzea bestetik, errealitatea alda erazten dio zintaren luzera ez mantentzea izanik dakarren ondorioa.

### 6. Ariketa

Ariketa honetan, haur batzuk, luzera ertzen arabera hartzen dute eta bi zintak konparatu behar dituztenean ertzak neurtzen dituzte Gehienek, transitibitate aplikatuz lortzen dute. Neurri handi batean zatiak osatuz edo zinten neurriaz

beste segmento zuzenak osatuz Neurri txikiagoak ematen zaienean ez dira gai erabiltzeko, txikiak direla esanez. Ia guztiak gai izan dira unitate baten erabilpenaz ohartzea irakasleak neurketaren hasera eman dionean, gizontxo baten pausoak direla esanez.

## 7. Ariketa

Ariketa honetan errealitatea aldatzen duten elementuak hauek dira:

- Sokaren berdintasun ala ezberdintasuna kontutan ez izatea.
- Egindako segmentoaren ertzak kontutan ez izatea eta bukaeran bakarrik fijaszea. Bakarrik gelditzen den zatian fijaszea bai mugimendua egiterakoan bai neurketa egiterakoan eragiten dio, honak.

## 8. Ariketa

Ariketa honetan laukidun bi koordenada erabiltzeko gaitasuna neurtzen da hau da, puntu baten kokapena bi neurrien arabera.


Hemen eman diren erantzunak 3 eratakoak izan dira, hirugarrena bat ezik besteek gaintu badute ere.

- Bi neurriak erabiltzea.
- Bietako bat.
- Begiz gorabehera.

Asko izan dira lehenengo puntua jarri dutenak eta frogatzeko esan zaienean neurtzeari jo dutenak.



NEURKETARI BURUZKO LANA



## BOST AXOLA

Orain aurkezten zaigun taldea berria dugu diskagintzaren merkatuan. Hamalau urtetako hiru neskek osatzen dute talde berri hau: Ainhoa Zilbeti, Amagoia San Jose eta Teresa Villar.

Esperientzi beritzat jotzen dugu diska honen argitalpena. Orain artean Euskal Heriko neska-mutilek erdarara jo behar izaten zuten beren adinari zegokien musikarekin konektatzeko. Orain, diska honen bitartez, hutsune hori bete nahi izan dugu. Ez dakigu asmatu dugun ala ez, baina hor dago lehen urratsa.

Diska honetan agertzen diren abestien hitzak, 1975ean El-goibarko Ikastolako haurrek idatziriko IZARREN BEGIE-TAN liburutik hartutakoak dira. Moldaketa musikalak Aitor Amezagaren eskutik joan dira, hitzen egokipenak Jexux Mari Lopetegik egin dituelarik.

Hamar abestik osatzen dute diska berri hau. Lehen aldean: Do-re-mi-fa, Xoriak, Ikatza, Mahai Zaharra eta Hazia; eta bigarren aldean: Trena, Pinturin kaxa, Lorea, Axota eta Eskoba deiturikoak.

Grabaketa lanak 1987ko iraila eta urria bitartean burutu ziren Donostiako IZ estudioetan, zeregin horren ardura teknikoak Kiaki Arkarazok eraman zuelarik.



**DISKETXEA**

**Musika**



## BERTSOLARITZAREN PLANGINTZA HAURTZARO IKASTOLAN

### 1.1. Maila

Maila honetan bertsolaritza erabat lotuta dago irakurketa idazketa prozesuarekin. Konkretuki *hasi-masiak deritzan lan metodologia* jarraitzen da. Egin dugun aldaketa bakarra hauxe izan da: Haurrari letra bakoitza agertzerakoan, bertso edo koplak batetan agertu. Bertsoa berehala ikasten du buruz, eta era berean letra horren irakaskuntza erruz errazten da, izan ere, haurrak letra gauza askorekin erlazionatzen bait du: doinu-musika, erritmoa, bertsoan kontatzen dena, bertsoa bera, ..., eta era honetan erraz memorizatzen dute letra berria.

Era honetan, ikasturtea bukatzeko, letrak ikasiz gain, bertso eta koplak mordo bat daki haurrak, bakoitza bere neurri eta doinu ezberdinekin noski.

Esperientzia hau aurten eraman da aurrera lehenengo aldiz, eta egia esan, orain arte behintzat primeran doakie 1. Mailako ikasleei eta irakasleei. Horregatik, aurrerantzean ere metodologia honekin jarraitzekotan gara. (*aurten "letrak bertsotan" liburuekin*) 1987-88. Letra denak bertsoz —bertso irakastearekin, eta haurra joku horretan sartuz, 1. Mailatik bertso kantari ditugu ikastolako haurrak.

### 2.2. Mailatik 5. Mailaraino

Maila hauetan bertsolaritza joko eta ariketa modura sartzen du irakasle bakoitzak, hizkuntzaren programaketaren barruan. Bereziki honoko ariketa moeta hauek seinala genitzake:

Besterik gabe bertso zaharrak eta koplak zaharrak kantatu, doinuak ezagutzen joateko.

Errima lantzen: Hitz bat ipini, eta bukaera berdinekoak harra-patzen.

Hizkuntza lantzen: Aurrez idatzitako hitz horiek bukaeran jarriaz, esaldiak idazten.

Oin bera erabiliaz esaldi ezberdinak osatu.

Alderantzizko ariketa: Bukatu gabeko esaldiak ipini, eta bukaerako hitza aurkitu.

Joskera lantzen: Lau hitz hartu (bukaera berdinekoak), eta lau esaldi idatzi, bainan elkarrekin lokera dutelarik.

Neurria lantzen: Oin bat harturik, 13 silabatako esaldiak idazten. (Neurri ttikia lantzeko).

Hitzak silabaka idazten: batekoak, bikoak, hirukoak, lau-koak,...

Bertsoak eta koplak osatzen: Koplak edo bertso zahar bat ipini eta osatu gabe utzi, haurrak bukatu dezan: Hasiera, bukaera, lerro bat, oinak,...

Ariketa ber-bera bertso berriekin.

Esan behar da, programaketa hau eta hamabostean behin, Ikastolen Federazioak bidaltzen duela.

### 3.6. Maila

Maila honetan irakasle berak lantzen du bertsolaritza hiru geletan. Plangintza honoko hau da:

Bertso moeta ezberdinak landu eta aztertu: Koplak, zortziko ttikia, zortziko handia, hamarreko ttikia, hamarreko handia, ... Ordena ere hori izango litzateke.

Zer aztertu?: Egitura. Lerroak, puntuak, neurria, errima, oinak, potoa, ...

Doinuak erruz landu urte guztian zehar:

Koplak: lau bat

Zortziko txikian: Hamalau bat

Zortziko nagusian: Hamar bat

Hamarreko ttikian: Lau bat

Hamarreko handian: Beste lau bat.

Doinuak eta bertso moeta ezberdinak ezagutzen doazen eran, bertsoak idazten jardun noski. Ariketa gustiak dira onak: Lau oinak emanda, hasierako puntua emanda, bukaerakoa emanda, gaia emanda, binaka ofizioa emanda, ... Bertsoak idatzi behintzat, hasieran osatu baldin bada ere, kurtso bukaerarako bertso osoak idatzi.

### 4. Bertsolaritzarako Tailerra

6. Maila arte bertsolaritza ikasle denak lantzen badute ere, bapatera pasatzeko ez da egokia gela osoarekin lantzea. Horregatik, 6. Maila osoan bertso idatzia lantzeaz gain, bapatera pasatze nahi duenak ba du aukera.

Bertso idatzia ongi menderatzen dutenek, eta gainera bapaterako joera, zaletasuna edo erraztasuna nabari dutenek, ostiral arratsaldean eta bi orduz, bertso idatzitik bapatera pasatzen saiatzeko aukera dute.

Beraz, tailerreko helburua, bertso idaztetik piskanaka piskanaka bapatean kantatzera pasatzea litzateke.

Programa: Hasieran eta erruz, KOPLAK kantatu jo eta ke. Koplak osatu eta koplak kantatu.

Kurtso erdiparean edo, zortziko ttikira pasatzen ahalegindu. Eta ariketak betikoak noski: Lau oinak emanda, puntua jarrita eta batez ere puntutan.

Bukaeran eta ahal bada, bertso osoari ekin, ofizioa edo, ...

Eta horretarako, batez ere neurria eta errima landu urte guztian zehar.



## IKASTOLAKO BERTSOLARI GAZTEAK

### 5. Bertsolari eskola

Aurten ere gogor jardun dute BERTSOLARIESKOLAKO bertsolari gazteak urte guztian zehar. Astearte arratsaldez entrenatuz gain, hor ibili gara ikastolaz ikastola jende aurrean bertso kantari. Aurrena bertsolariak aurkeztuko ditugu: Juan Mari Lopez, Carlos Aizpurua, Iñaki Pikabea, Yagoba Larburu eta Aitor Etxebeste.

Otsailaren 4 ean Irungo Txingudi Ikastolan hasita, geroztik beste Ikastola hauetan izan gara: Hernaniko Urumean, Urnieta Egapen, Oiartzungo Elizalde Ikastetxean, Martuteneko Ikastolan, Errenteriako Oreretan, Hernaniko Langilen, Billa-bako Paz de Cigandan, Berako Labiagan, Lizarrako Ikastolan, Iruñeko San Fermin eta Amaiur Ikastoletan.

Hamabi ikastola hauez gain beste zenbait saiotan ere parte hartu dute bertsolari hauek: Eskolarteko Txapelketan, Xenpe-lar Sarian, Gazteen Aste Kulturalean, Bertso Astean, Oiartzungo festetan,...

Saio denetan bertso eder eta polit asko izan badira ere, hemen gutxi batzuentzat dugu lekua. Adibide bezala, hona hemen Carlosek Iruñeko Amaiur Ikastolan kantatu zuen bederatzia puntutako bertsoa:

Oiartzundik atera  
eta Iruñera  
pozik etorri gara  
denok honera.  
Nafarroa maite dut  
goitikan behera,  
hasi Luzaide eta  
bukatu Tutera.  
Nafarroa zera,  
baina hizkuntza bera  
hain zuzen EUSKERA  
nabari dut zera:  
gu zuek bezelake  
euskaldun gera

Saio hartan Ofizio hau ere izan zuten kantatzeko gai: Carlo Irakaslea, Aitor aita eta Iñaki ikasle alferra. Aitak semeari berotu egingo zuela eta hara Iñakik, semeak bota ziona:

Beraz jarko didazu  
ipurdia bero  
horretaz hitzegingo  
degu biok gero.  
Ateriak dituzu  
zuk-e hainbat zero  
Horregatik zabilta  
orain barrendero.

Beste Zazpikote bat ere, eta ikastolako ordutan, ostiral arratsaldez hain xuxen, aritu de bapatean entrenatzen jo eta ke: Asier Bergaretxe, Andutz Labandibar, Ibon Pikabea, Kerman Kortajarena, Fernando Irigorri, Eneko Pontesta eta Arnaiz Bergaretxe.

Hauek aurtengoz ez dute irtenaldietan parte hartu, baina gutxienez Eskolarteko Txapelketan eta Lexoti Sarian aritu dira, eta ongi aritu ere.

### 6. Eskolarteko Bertsolari Gazteen Txapelketa.

a) Hautzaro Ikastolatik 65 ikasle aurkeztu ziren Hernaniko bertso paperetako azken saiora lehenengo froga pasa ondoren. Bertso paperetan lehenengo lau sarituen artean oiartzu-

ar bat izan genuen, Harkaitz Goikoetxea hain xuxen.

b) Bapatean berriz, lau bertsolari izan genituen ttikien Mailan Hernaniko semifinalean: Asier Bergaretxe, Andutz Labandibar, Ibon Pikabea eta Kerman Kortajarena. Laurak Saio polita egin arren, bat bakarrik iritxi zen Karmelo Baldako azken Saiora: Asier Bergaretxe.

Bapatean baita ere, baina Handien Mailan, sei genituen Beasaingo semifinalean: Aitor Etxebeste, Aitor Arbelaiz, Carlos, Juan Mari, Yagoba eta Iñaki. Sei hauetatik bik lortu zuten Finalerako pasea: Aitor Arbelaizek eta Juan Marik.

Hona hemen Juan Marik Finalean lau oinak emanda kantatu zuen bertsoa:

RETEGI, BEGI, GEHIEGI eta SEGI.

Zuri begira daude  
horrenbeste begi  
nahiz zortzi irabazi  
nahiz irabazi zortzi  
ez dira gehiegi:  
Dozena lortu arte  
zuk horrela segi.  
Gaurkoz onena zera  
onena zera gaurkoz  
ta gora Retegi!

DOINUA: "Bautista Basterretxe"

Aurtengo Txapelak Hernanira eta Atauna joan baziren ere, Oiartzundik LAU FINALISTA izatea ez da gutxi.



# Bertsolaritzaren plangintza

## 7. V. Lexoti saria

Beste ekintzen artean, Hautzaro Ikastolan urtero ospatzen den Bertsolari Txapelketa era aipatu beharra dago. 1983 hasi ginen I. LEXOTI Txapelketarekin, eta aurtengoa V.a genuen.

Lehiaketa hau bapatean izaten da eta Ikastolako Bertsolari gazteen artean. Aurten, ostiraletako Bertsolaritza Tailerreko zazpiak genituen lehian: Kerman Kortajarena, Ibon Pikabea, Andutz Labandibar, Fernando Irigorri, Eneko Pontesta, Asier Bergaretxe eta Arnaiz Bergaretxe.

Ekainaren 5ean eta Ikastolako Gela Nagusian, honoko lan hauei ekin zioten zazpi bertsolariek: Lau oinak emanda bi bertso, Puntua jarrita bertso bat, Ofizioka bertso bat, puntutan gai librean, eta gaia emanda bertso bat. Epai-mahaiko lanetan Jon, Joxin, kontxi eta Inaxio izan genituen.

*Lehenengo Saria Asier Bergaretxerentzat* izan zen. Saria jasotzen ondoren, honoko bertso hau kantatu zuen:

Zazpikote hau izandu bait da bersotarako hezia,  
eta hementxe aurkitzen zaigu Euskal Herriko hazia.  
Zuentzako gaur eskaini dugu tristura eta grazia,  
hemengo honek kopa ez dauka oso ondo merezia.

Bigarren Sarirako hiru zeuden puntuazio berdinarekin: Andutz, Fernando eta Kerman. Azkenean Fernando Iragorrirentzat izan zen bigarren sari hori, desenpateko bertsoak kantatu ondoren noski.

Esan behar da Lehiaketa hau burutzeko laguntza izan dugula Lankide Aurrezkiaren partetik eta eta Aurrezki Kutxa Probintzialaren partetik. Mila esker.

Sari banaketarako LEXOTI bera genuen gure artean, eta arreta handiz jarraitu zuen saio osoa.

Hasiera ere berak eman zion honoko bertso honekin:


Gaur Oiartzunen pasa nahi nuke  
arratsalde bat gozua,  
hemen entzunaz gazte hauekin  
bertsotan saio osoa.  
Dударik gabe hau izango da  
netzat egun erosua,  
Zerua zer dan ez dakit bainan  
hau degu Paradisua

Aurtengoz aski izango dugulakoan, eta hurrengoan ere bertsozaleontzat kontatzeko historia pranko izango dugun itxaropenean, besterik ez.

Ikastolako Bertsolaritzako arduradunak.

**Antton Kazabon**  
OIARTZUNEN, 1987ko Ekainaren 8an





## PSIKOMOTRIZITATEA

Haurrekiko jokabidean funtsezko al-daketa eman du irakasleak azken urteotan; inguratze berri honekin eta intelektual mailaz gainera, haurrari bere alderdi emozionala eta afektiboa espresatzen uzten zaio, haurra bere osotasunean hartuz, alegia. Hori frogatu ahal izateko, aski da ikustea txokoetako lana, non (haur txikienak gehienbat) ordu berean eta bere nahi eta gogo edota, interesen arabera ekintza desberdinak egin ditza-keten.

Askotan irakaslea asperturik senti-tzen da, ekintzak edota lan berriak pro-posatzerakoan baina, bestalde, hori egin beharrean dago.

Ez da batere erraza izaten beti haurra-ri libreki espresatzen uztea, zenbait insti-tuzioetan sortaraz litzakeen arazoez gai-nera, haurrak ez direla batere sortza-ileak dioen eritzitik abiatzen bagara be-hintzat, eta "egiten uzteak" sortarazten dizkigun beldurrak dauzkagu, bestalde.

Haurrekin eginiko azken zazpi urteotako esperientziak Psikomotrizitatean erabat aldatu nau haurrekiko eta haur munduarekiko nuen ikuspegia, batipat.

Gogoratu besterik ez dago lehengo Hezkuntz-sistema, bai Batxilerrean, bai-ta Goi mailako ikasketetan ere; beti esan ohi zaigu zer egin behar genuen, bestela, egin egiten zuten, gure lana oharrak har-tzera mugatzen zelarik.

Marcel Pla-rekin lanean ihardun nue-neko lehen esperientziak aldiz, oso atse-ginak eta liberatzaileak izan ziren oro-har, nahiz eta zenbaitetan larri samar ibili. Jarraitu beharreko urratsak oso la-burrak ziren, dinamika zabal eta libre batetan aurkiturik, non askotan norbere burua egoera irrigarri batetan ikusten genuen.

Psikomotrizitateak indar handi sama-rra hartu du azken urteotan, zeren, ares-tian aipatu bezala, haurra bere osotasu-nean hartu nahi bait du, zatikatu gabeta-nik; bestalde, egia da gai hau landu duen irakasle talde batek psikomotrizitatea-ren ikuspuntu arrazionalago batetik lan-du duela, hots, haurrari lagunduz alegia, denboran eta espazioan hobeto orienta dadin ariketak eginez, honek haurraren idazketa eta irakurketaz jabetzen lagun-duko ziolakoan, adibidez.

Guzti hau aztertuz gero, ohartzeko ga-rra berriro ere, haurra gizaki-eskolarra gisa hartzen dugula eta azken finean, geu garela ariketa horiek inposatzen diz-kiogunak, haurraren espresabide-beha-rra kontutan hartu gabe. Non dago gure entzutezko kapazitatea? Komunikazio-rako "bi" lagun behar dira benetazko komunikazioa egon dadin.

Benetan diot, haurrari bere sormena sortarazten laguntzeko, bere autonomia bizkortarazteko eta bere oreka emozio-nala aurkitzeko beharrezko da zenbait unetan ahalik eta askatasunezko eta be-re espresioarekiko errespeto gehieneko lekua uztea; hau diodanean, zuzentzaile ez diren psikomotrizitate sesioetaz ari naiz, hau da, haurra ahal den leku han-dien eta materiale neutroez mogi daite-keenaz, alegia; jauzi, irrista, igo, orekak egiteaz gainera, inolako jokabide zeha-tzik ez duen pertsona helduarekin kom-unika daitekeen egoeraz edota, bere lagunekin bezala, edo ilezko hartzatxo-arekin bizi dezakeen egoera afektiboa, beti, bere gogoaren orainaren arabera.

Baina sesio hauek aurrera jarrai deza-tela nahi izanez gero, pertsona helduak autoezagutza fasean sartu behar du, hots, bizipen guzti honek pertsonalki es-

perimentatuak izan behar ditu. Beste modu batez esateko, gure nortasunaren "haur" zati horren eta gure benetazko izatearen berraurkitzeruntzko bidea, alegia; guztiok hain berarean daramagun pertsonaia hasieratik baztertu gabe.

Bai Bernard Aucouturier-ek eta baita André eta Anne Lapière-k ere, ezin-bestekotzat jotzen dute formazio-etapa hau haurra ulertzeko eta berekiko zein jarrera hartu behar den jakiteko, sesioa-ren sostengu eta eusle izateko eta bere produkzioa errespetatzeko. Oso etapa garrantzitsua da pertsona helduarentzat bere errolaren boteretik agertzen duen jokabidea, hots, agresibitate nabarmen edo izkutuko uneak, eta bere afektibita-tezko eskaerak eta urritasunak hobeki ulertaraziko diolako.

Haurraren produkzioa errespetatzeaz mintzatzerakoan, berak egiten duenaren entzunaldiaz ari naiz, guk egin araztea proposatzen diogunaren alderantzizkoa hain zuzen ere, berari sortzen zaiona..., bapateko jokoa..., eta hori errespetatzea ez da juzkatzea on ala txarra den,... bera eta bere geldotasuna barne, osoki onar-tzea baizik.

Baina formaziora itzuliaz, beharrezkotzat jotzen dut lan hau, ez psikomo-trizitate-irakasle espezifikoarentzat bai-zik eta, edozein irakaslerentzat; zeren, pertsona helduak egunean zehar hainbat eta hainbat mezu igortzen bait ditu eta nahita nahiezkoa da berauen edukia ezagutzea.

André eta Anne Lapière-k edozein pertsonarentzat eskaintzen dute beraien formazioa (irakasle, psikologo izan ala ez), esperientzia terapeutikoa delako. Haurrekin lan egiteko arauak eman baino lehenago formazio pertsonala propo-satzen dute, gero hori lantzea ala ez oso librea bait da.

Baina hau bide luzea da, non bertan norberak arazo pertsonalak burutu bait ditzake, besteekiko harreman-kalitatean ondorio zuzenak edukiaz. Bide hau ez da teknika berrien ikasketetarako, inpli-kazio pertsonala baizik, hots, gure bene-tako izaeraren eta sormenaren bilaketa bat.

Egile:

Alberto BARRENETXEA

(Haur psikoterapeuta-Psikomotrizista)

Itzultzaile: IRAKASLE ELKARTEA

PSIKOMOTRIZITATEA



## Irakurri; zer?, nola?, zertarako?

### Zer da irakurketa?

Irakurmenak testu idatziak ulertzea esan nahi du, informazioa ahalik eta era eraginkorrenean ateratzea testu horretatik. Adibidez, ez gara estrategia beraz baliatzen etxabizitza bati buruzko iragarki taula begiratzen dugunean eta aldizkari zientifiko bat. Lehen kasuan, garrantzirik ez duen informazioa baztertu egingo du. Bigarrean, ez da nahikoa testuaren muina ulertzea; gauzak zehatzago ulertu behar dira.

Irakurketa ez da bapateko sormena, urrats batzuk jarraituz eraikitzen den prozesua baizik. Irakurketa ez da haurtzaroko arazo bat bakarrik; gerora ere badu eraginik. Gai ezberdinetan, ikasleak izan ditzakeen ondorioak, irakurketarako lortu duen gaitasunarekin loturik dago.

Ekintza kognoszitiboen garapenean eta irakurketa ohituren lorpen egoki baten artean erlazio estu bat dago: irakurketarako gaitasun ezak pentsamendu abstraktoa galerazten du.

Inoiz ez diogu uko egin behar irakurtzen ikasteari. Hona Goethe pentsalari alemanak zer dioen bere lagun Eckermani:

"Jendeak ez daki zenbat denbora eta pazientzia behar den irakurtzen ikasteko. Larogei urtetan zehar ari naiz lan honetan eta oraindik ezin dut esan lortu dudarik".

Zer da irakurketa? Mialaret-ek honela dio: "Irakurketa mezu idatzi baten edukia ulertzea da, eta horretaz gainera, mezu hori eta bere balio estetikoa baloratzeko gai izatea".

R. Gloton, "Nouvelle education" talde frantsesekoak zera dio: "Irakurketa operazio eraginkor bihurtzeko, eta besteen ideia baten bersortze-jarrera bat hartzeko gai denari; besteei eta norberari adi egotea suposatzen du honek. Arrazoi du Sartrek irakurketan somaketa eta sortzearen sintesia ikusten duenean".

M. Lobrot-ek, psikologo bezala, irakurketa inplikazio afektibo eta komunikazio desio bat dela esaten du: "somaketa jarrera honek testu idatziari eduki bat eranstera bultzatzen du irakurlea eta, era berean, jasotako elementuak iraganeko esperientzi multzoarekin elkartzera, beraien oroimena inpresio eta ideia-erizpen eran gordez".

1969. urtean Quebec-eko gobernuaren "ereduzko egitamu" batetan, irakurketa ikasteko era bat, beste entzumen-metodo bat (Bisuala) dela esaten da. Gaur egungo erizpideek irakurketa sinbolismo zuzentzat hartzen dute: idatziaren esanahi zuzen bat eskuratzea da. Irakurleak testuko ideiak jaso, interpretatu eta baloratu egiten dituzte.

Esanahiaren muina ukitzean hiru aldagai izan behar dira kontutan: idazlea, irakurlea eta materiala. Esaldi osoaren ulermena osatzen duten hitz bakoitzaren ulermen partzialetik ez dator. Irakurketan, testuan gorderik dagoen pentsamendua jaso behar da.

Jenkinson-ek, testuari esanahia eman behar zaiola dio. Esanahia eraikitzerakoan bi prozesu omen:

—esanahiaren interpretazioa. Esanahi zuzenez aparte, esanahi osagarrizko eta implizitoaz jabetzea.

—esanahiaren ebaluazioa: mezua norberaren esperientzia eta ezagupenen baitan epaitzea da. Erreakzio kritiko bat izatea. Jenkinsonek dioenez, adimen prozesu ezberdinek parte hartzen dute: diskriminazioa, irudimena, analisisa, epaiketa, arazoan argitzea...

Irakurketan bi informazio mota ematen dira:

—Ikusmenezkoa, inpresoak daramana.

—Ikusmenezkoa ez den informazioa: hizkuntzaren ezagutza, testuan dagoen gaiaren nolabaiteko ezagutza... Irakurleak ikusmenezko ez den informazioa zenbat eta gehiago izan, hainbat eta ikusmenezko gutxiago behar du. Horregatik, hitzak eta esaldi ezagunak, gure herriko txartelak, egunkari bat, elaberri erraz bat... aiseago irakurtzen ditugu.

Ulertzen den testua beste hitz batzuek adierazteko gai izan behar du irakurleak. Oraintsu arte, irakurtzea deszifratzea dela pentsatu izan ohi da. Hizkiak soinu bihurtu. Baina dauzkagun datuek ez dute hori adierazten: irakurtzean ez ditugu erabiltzen inpresoan dauden adierazpenak bakarrik (hizkiak, hitzak, lerroak, maiuskulak eta abar), esanahia bera ere adierazpen garrantzitsua da. Irakurtzea errealtate psikologiko bat da.

## ZERGATIK, ZERTARAKO IRAKURRI?

Irakurketa ekintzatarako abiapuntu da; pentsaera ardatz eta informazio-zutabea. Era berean, komunikazio funtzio bat betetzen duenez, giza bizitzaren ardatza da.

Askotan, irakurketak giza irudi baten aurka aritu behar du. Gure inguruan irakurtzearen aurkako prebentzioren bat somatzen da: oporraldietan edo etxean irakurtzea besteei denbora kentzea da, ukatzea: seme-alabei, emazteari, senarrari, gurasoei, eta abar. Irakurtzea ez da lan egitea, dirua alferrik gastatzea.

Inkestetan adierazten denez, Euskal Herrian oso gutxi irakurtzen da. Jendeak beharrez bakarrik irakurtzen du.

Posible da irakurtzeko asmoen sistematizazioa egitea. Irakurketak badu zerikusirik heziketa eta bizibidearekin:

—Profesional-ek (ingeniari, sendagile, legegizon) bi irakur mota:

- Informazio irakurketa: mamia ezaguna baina datu zehatza behar.
- Liburu zientifikoaren irakurketa sakona.

—Ikasleen artean hiru irakurketa mota nabaritzen dira:

- Ikasketa testuena.
- Ornitze kulturalerako irakurketa: eleberriak, saiakerak, filosofia...

—Hirugarren sektoreetako (enplegatu, sekretari, bankari...)

- Gai ezberdinetan egiten dute irakurketa: egunkari-ofizial, lege-testu, posta, barne ohar...

### Zer irakurtzen dugu?

—Elaberriak, historio laburrak, ipuinak, beste testu literarioak eta saiakerak, biografiak...

—Antzerki-lanak.

—Poemak, koplak, haur-ipuinak.

—Gutunak, kartapostalak, telegramak, oharak.

—Egunkari eta aldizkariak.

—Artikulu espezialduak, erreportaiak, kritikak, saiakerak, negozio-kartak, panfletoak.

—Manualak, testu-liburuak, gidak.

—Errezetak.

—Iragarkiak, katalogoak, bidaietako liburuskak.

—Igarkizunak, arazoak, joko arauak.

—Komikiak, dibujo eta karikaturak, leiendak.

—Estadistikak, diagramak, mapak, ordutegiak.

—Telefono gida, hiztegiak.

Oinarritzko okerra da erabakarako irakurketa egitea.

### Nola irakurtzen dugu?

Ez da erraza irakurketari ematen zaion denbora, metodoa eta helburua mugatzea. Gehienetan ez dago metodo praktikorik ezta ere irakurtzeko egiazko asmorik.


Historian zehar ahalegin pedagogiko ezberdinak izan dira irakurketaren irakaskuntzan. Azken mende honetan irakasbide "global" eta "silabiko" en arteko eztabaida nagusitu da.

Egun, lau irakurketa mota bereiztu ditzakegu:

1. Gainirakurketa: Testuari begirada azkar bat botatzear datza, testuaren muinaz jabetzeko.

2. Nabarirakurketa: Testua gainbegiratu eta interesatzer zaigun informazio zatian geratu eta irakurri.

3. Irakurketa hedakorra. Globala: testu luzeak irakurtzea normalean plazerragatik.



4. Irakurketa intentsiboa: testu laburragoak irakurtzea informazio zehatza lortzeko.

Irakurketa mota hauek ez dute elkar baztertzen.

—Irakurtzeak aldiko trebetasun bat edo batzu lantzea esan nahi du:

- Hizkuntza baten ezaugarriak ezagutzea.
- Esaera edo esamolde lexikalen erabilera eta esanahia ondorioztatzea.
- Esplizituki adierazita dagoen informazioa ulertzea.
- Esplizituki adierazita ez dagoen informazioa ulertzea.
- Esanahi kontzeptuala ulertzea.
- Esaldi eta esamoldeen funtzio komunikatiboa ulertzea.
- Esaldi barruan dauden erlazioak ulertzea.
- Testuaren zatien artean dauden erlazioak ulertzea lotura lexikalen bidez.
- Testua ulertaraztea.
- Elkarrizketaren adierazgailuak ezagutzea.
- Elkarrizketa zati batean puntu edota informazio garrantzitsusuen identifikatzea.
- Detailetik ideia nagusia nabarmentzea.
- Laburbilduma bat egiteko puntu nagusiak ateratzea.
- Testuaren puntu aipagarrienak aukeratzea.
- Gainirakurketa.
- Nabarirakurketa.

Zerrenda hau, John Munby-arena da.

—Trebetasun hau garatzeko, ariketa mota askotara jo daiteke. Galdera mota hauek bi funtzio diferente izan ditzakete:

A) Pasarte baten organizazioa argitzeko galderak:

- Pasartearen funtzioari buruz.
- Organizazio orokorraz (argumentazioa).
- Organizazio erretorikoaz (kontrastea, konparazioa).
- Loturak egiteko errekursoak.
- Esaldien arteko erlazioaz (eratorpena, morfologia).

B) Pasartearen edukiak argitzeko galderak:

- Berehalako ekintzaz (erreferentzia zuzena).
- Ekintza inplizitoaz (inferentzia).
- Ondorioztatutako esanahiaz (suposaketa).
- Ebaluaketaz.

### Kontutan hartu beharreko zazpi puntu

1. Orain dela gutxi arte uste izan da testua bata bestearen atzetik jarritako esaldi multzo bat zela. Denak zeuden gaiari lotuak eta nahikoa zen esaldien estruktura eta esanahia aztertzea. Baina irakurketa eraginkorra izango bada, zatiaren edota testu osoaren estruktura aztertu beharko da.

2. Irakurritakoa globalki ulertuz hasi behar da, gero zehazkiago ulertzera jotzeko. Garrantzizkoa da hori arrazoi batzuringatik:

- Ikasleak testu zailekin topo egiten duenean ez du atzera egingo. Konfidantza emango dio.
- Testuak nola organizatzen direnez jabetuko da (garrantzizko informazioa atera, ekintzak ordena kronologikoan jarri).
- Unitate luzeetan antolatutako testuan, argazkiak, diagramak lagungarri dituela, aurrikus dezake. Beharrezkoa, inferentzia, antizipazioa eta dedukzioa garatzeko.
- Hurbilketa prozesua honela laburbildu daiteke:

Titulua, luzera  
marraskia, letra  
mota aztertu

artikuluaren edukia  
eta funtzioari buruzko  
hipotesiak egin

testuan hipotesi  
horiek non diren  
ikusi

Hipotesien  
konfirmazioa edo  
rebisioa

Aurreanak

Bigarren irakurketa  
zehaztasunez jabetzeko

3. Testu orijinalak erabiltzea komeni da. Ez erraztuak. Irakurketa ariketaren zailtasuna ez dago testuan heinbeste, ematen zaion aktibitatean baino. Noski, testua ikaslearen konpetentzi mailaren mugetan badago.

- Testu orijinala, aldatu gabea da. Testuen aurkezpena estandarizatzeak motibazioa eta interesa kentzen dio.

4. Irakurriaren ulermena ez litzateke beste zenbait ekintzatatik aldendu behar. Inportantea da beste trebetasunak elkarrekin lotzea. Karta batean irakurritakoa esanaz, idatzia dagoen arazo bat soluzionatuz.

5. Irakurketa ekintza aktiboa da. Aurrean, asmatu, zuzendu, galderak egin. Ariketak funtzio komunikatiboa izan behar du. Eskutitzari erantzun, testua zerbait egiteko, arazo bat konpontzeko.

- 6. Ariketak malguak eta era askotarikoak.
- 7. Ariketen helburua ondo definitu behar da.

### Irakurmena Ikasgelan

Barietatea inportantea da ikasleak motibatuzeko eta beste trebetasunekin lotzeko.

Lehenengo testua aukeratu behar da. Gero, teknika egokitu. Testuak irakurtzeko eta disfrutatuzeko eta ez ariketak egiteko.

### PROZEDURA

- Irakurketa isilean egiteko ekintza da. Ozenki irakurtzea ez da beharrezko.
- Testu guztiak ez dira abiadura berdinean irakurtzen.
- Testu batenganako hurbilketa nola?
- a) Testua globalki. Titulua, diagrama edo marraskia, zatiak, letra mota. Zeinek idatzi duen. Norentzat. Non argitaratu den.
- b) Gainirakurketa. Egindako hipotesiak egiak diren edo ez. Testuaren edukiaz galdetu.
- c) Testua astiro irakurri. Zehaztasunak jaso. Galderei erantzun.
- d) Irakurketa ez da beti lan pertsonala. Binaka intrepreatu. Denak batera eztabaidatu.
- e) Irakurmena lantzeko ariketak klasean nahiz etxean. Klasean taldeka lan du daiteke.

### Irakurtzeko Teknikak

#### 1. SENSIBILIZATZEN

a) **INFERENTZIA.** Ezagutzen ez den elementu baten esanahia josotzeko laguntza sintaktikoa, logikoa eta kulturala erabili. Testu berria hobe ikasleei ez aurkeztea ezta hitz zailen esanahia argitu. Hitzen esanahia hiztegietan begiratu gabe ahal dela asmatu behar dute. Oso inportantea da intuizioa.

b) Hitz baten esanahia ez ezagutzeak desanimatu egin dezake. Hori gerta ez dadin, esaldiaren mamia, funtsa, begiratzen ohitu behar ditugu ikasleak. Testuak zatikatzea eta ikasleen artean banatzea egokiena.

#### c) IDEIAK ETA ESALDIAK.

Oso garrantzitsua da ikasleak erreferentziak, loturak eta abar aurkitzen trebatzea.

### GAINIRAKURKETATIK ÑABARIRAKURKETA-RA

Irakurtzeko arrazoi batzuz izaten dira eta teknika arrazoi horri egokitu behar zaio.

#### a) PREDIKZIOA

Ez da teknika, baina teknikei lagun diezaiekeen ekintza da. Ekintza ondoren zer datorren edo zer esaten den asmatu. Testu baten bukaera asmatu.

#### b) AURRIKUSTEA

Interesatzen zaigun informazioa non dagoen jakiteko, aurkibidea, hitzaurrea eta kapituluaren tituluak erabili.

#### c) AINTZINAPENA

Zaila da irakurketa positiboa egitea motibatua ez badago bat. Ikasleek zer irakurri nahi duten esan behar dute. Neurri batean beraiek aukeratu beharko lukete. Ikasleak bere burua prestatu testua irakurri ahal izateko. Adibidez:

- Testuak azaltzen duen gaiari buruz zenbait galderei erantzun.
- Titulua eta ilustrazioak erabili.
- Testuaren hitz klabeak erabili.

Adibidez, "Olentzero ezberdina da toki bakoitzean" (Euskalduntzearen B mailarako langaiak).

#### d) GAINIRAKURKETA ETA ÑABARIRAKURKETA

Gainirakurketa azkarra da, ideia bat hartzeko, nola antolatu dagoen, autorearen asmoari antzemateko. Adibidez, "artikuluak eta tituluak" Euskalduntzearen B mailarako langaiak.

Ñabarirakurketa, berriz, informazio espezifikoak lortzeko. Sakoneko irakurketa da.

### 3. NOLA KOMUNIKATZEN DA HELBURUA? TESTUAREN FUNTZIOA

a) Ikasleak hasi aurretik jakin behar du testuak zein asmo duen: irakurlea konbentzitzea, informazioa ematea, zerbait gal-detzea, etab.

#### b) TESTUAREN ORGANIZAZIOA

- Garrantzirik gabeko informazioa baztertu.
- Gaia azaltzen duten esaldiak bilatu.
- Generalizazioak eta gauza ezpezifikokoak bereiztu.
- Testuaren egituraren hezurdura osatu.
- Sekuentzia kronologikoa, deskribaketa, analogia eta kontrastea, gaiaren organizazioa.

#### c) GAIAREN ANTOLAMENDUA

Zerikusi handia du testuaren mezuarekin.

#### d) ESANAHIAZ JABETZEKO TEKNIKAK

Batzutan zenbait galdera mota erabiltzen da: galdera zuzenak, irekiak, adibidez, "euskal sinismen zaharrak" Euskalduntzearen B mailako langaiak. Oker-zuzen, aukera anitzekoak, adibidez, "pastoralak" EG Arako langaiak, U.17.01.

Beste ariketa batzu bi helburu hauetan oinarritzen dira:

—Irakurgaia lan du arazi, erabakia eskatuko dien ariketa bat eginez (diagrama bat egin, taula bat osatu)

—Testuak sor ditzakeen proiektzioak burutu, hauek ahalik eta berezkoenak izan daitezen saiatur. Adibidez, eskutitz batean jasotako informazioarekin erantzuna idatzi; dokumentu bat osatu...

a) Testuari erantzun ez linguistikoa eman behar zaionean.

- Argazki sekuentziak ordenatu.
- Testua eta marrazkia konparatu.
- Testua eta marrazkia edota grafikoa elkarri egokitzen zaizkion ikusi, adibidez, "txontxongiloen eraketa" Euskalduntzearen B mailako langaiak.
- Informazioarik, inportanteena jaso.
- Erlazionatu; testuaren zatiak, datak, ekintzak; galdera erantzunak.
- Testua norberaren esperientziarekin erlazionatu, adibidez, "Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian" Euskalduntzearen B Mailarako langaiak.
- Gauzak egiteko instrukzioak, joko batean aritzeko instrukzioak.
- Erabakiak hartzeko testuak: lehiaketa batean parte hartzeko arauak.
- Informazioa berrantola, adibidez, "sagardoa eta sagarkia" Euskalduntzearen B mailarako langaiak.

#### IRAKURKETA MOTAK. LANKETA MODUAK

Entzun-ariketen sailkapena egiterakoan bezala, zail gertatzen da irakurmenaren lanketa-moduena egiterakoan ere sailkapenerako erizpide egokia topatzea. Beraz, teknika edo modu ezberdinak zerrendatzeari ekingo diot. Entzumena eta irakurmena komunikazioaren arlo hartzaileak direnez, bietan agertzen dira espektatiba eta erantzunaren ezaugarriak, eta hauek tekniken izaeran eragin handia izanik, ariketak muinean berdina dira. Hona hemen zerrenda.

#### IKUSITAKOEN LAGUNTZA DUTENAK

Komikiek betetzen dute hemen lekurik gehiena. Erabilgarri dira edozein mailatan.

#### ENTZUNDAKOA JARRAITU

Hasierako irakurgaietan, laguntza handia izan daiteke irakasleak ozenki irakurtzeaz batera beraiek ahopen irakurtzea. Normalean errazago gertatzen zaie beste batek irakurritakoa ulertzea beraiek irakurritik ulertzea baino (ez zaie erraz gertatzen ideiak, adizkerak, esaldiak non hasi eta non bukatzen diren aurkitzea, eta besteak ozenki irakurtzean egiten dituen pausa, entonazio-aldaketa eta etenen bidez errazago da hauek testua ulertzea).

#### HITZAK, FORMAK JASO

Ulermen zehatza edo hizkuntz edukien lanketarako egoki prestatzen dena. Bere lanketa modua entzumenaren kasuan bezala.

#### ANTZEZTEKO TESTUAK

Ahoskatze, entonazio eta espresibitate egokiaz beharra da mota hauetako testuen irakurketak eskeintzen duen abaintal nagusia. Antzeztu beharrak, eta ongi antzezteko hainbatetan entseiatu beharrak eskaintzen dio irakasleari zuzendu beharreko guztiak zuzentzeko aukera eta ikasleari, errepikatzen podedorioz, hainbat hizkuntz forma, espresio eta entonazio bereak egiteko.

#### TESTUAK ORDENATU

Ulerkuntza globalaren arloko ekintza. Testu hauen irakurketak helburu zuzen bat azaltzen du, ordena egokia bilatzea, eta hori atentzio eragile izango da. Irakurketak erantzun bat izango du. Ariketa honek ager dezake barianterik: testua bera ordenatzea, testua eta marrazkiak ordenatzea eta testutxoak eta izen buruak parekatzea.

#### MARRAZKIA EGIN

Irakurritakoari buruzko marrazki bat egitea beste erantzur mota bat da. "Gela aldatzen" aek.111

Era berean, marraztu beharrik egongo ez bada ere, marrazki bat erabil daiteke. Adibidez, hiriko plano aurrean dutela, ibilbide bat egokitu beharra Udalak obra batzuk egiteagatik ezarrituen bide berrien oharra irakurriaz.

#### EGIA/GEZURRA IRAKURGAIK

Pasarte txiki edo esaldi soltez osatutako testuak izan daitezke. Normalean irakurketa zehatz mailakoak.

#### PROBLEMAK

Bizitza errealean bezala arazoren bat konpontzeko idatzizko testu batetara jotzen dugu (erosi berria dugun argazki makinaren erabilera ezagutzeko, kotxean ez-ohizko argi bat piztu dela eta)

Idatzizko testu hori ondo ulertzea beharrezkoa da gure arazoa konpontzeko.

Errealitatean hainbatetan gertatzen den kasu hau klaseratzea da irakurketa saioei bizitasun eta motibazioa ematea. Ematen ari diren filmeen kritikak irakurri ondoren pelikula bat hautatu. Kirol bateko erreglamendua irakurritik hauzi bat konpondu.

Asmakizunak eta antzekoak jar daitezke irakurgai moduan, irakurketak erantzuna eman beharra izan dezan.

#### DATU ZEHATZAIK HARTU

Testu batetan agertzen diren datu guztien artean interes berezia dutenak jasotzea izango da egin beharra.

#### IRAKURRITAKOARI BURUZKO GALDEREI ERANTZUN

Galderak izan daitezke ahoz edo idatziz ematekoak, eta kasu honetan izan daitezke erantzun librekoak edo aukera anitzekoak.

#### KONTAKETA

Irakurritakoaren kontaketa ulermen global edo zehatzaren alde aurretiko erabakia behar du kontaketa egingarria gerta dadin. Baliozkoak bertatzen dira entzumenaren lanketak aipaturiko ariketak.

Kontaktaren bariante bezala agertzen da, apunteak hartu ondoren laburpenak egitea. Azken finean kontaketa global idatzizkiak izaten bait dira berauek.

**JOKOEN PARTE DIREN IRAKURGAIK**

Hainbat eta hainbat joko. "Altxor bila" eta "Kurpil ikerketariak" izan daitezke adibide, testu idatzi batzu interpretatu beharra izaten da. Testu hauetan ez gara irakumena lantzearen bila abiatu baina garbi dago aldi berean, irakurketa lan bat esijituko diela, ikasleei beraien ulertzeak.

**TESTU HUTSUNETUAK**

Idatzizko testu batean hitz batzu ez falta izanak ez du testu ulertezina egiten. Are gehiago, litekeena da falta diren hitz horiek zeintzu diren asmatzea. Hontan oinarrizko dira burutze frogak. Burutze frogak era askotarikoak izan daitezke, hitzak ezabatuak izan daitezke sistema matematiko bat jarraituz edo zein hitz kentzen den aukeratuz. Hitz bat kendu beharrean beste asmatutako batez izan daiteke trukatua.

**LITERATUR IRAKURKETA**

Behin maila batetara helduz gero, literatur irakurketak badu tokirik gure eskoletan. Zenbaiten kasuan, plazerraz irakurtzea ematen da eta hori helburu dukegu goimailetan bederen. Literaturaren azterketa lanak ere badu bere lekua.

**CLOZE TESTAK ETA IRAKURMENA**

Testak prozesu didaktikoaren efektibotasunaren neurtzaile bezala erabili izan ohi dira askotan. Baina, irakurmena lantzeko baliabide emankorrak ere bihur daitezke. Hitz katean elementuren baten falta nabaritzean, falta den hitza jarriko dugu. Operazio horri egiteko testuinguru batean oinarrizko gara, testuko elementuek beren artean dauzkaten erlazioetan. Predikzio-mekanismoak funtsezkoak dira Cloze testetan. Irakurleak nahitaezkoa du predikzio egitea testua ondo ulertzeko. Hona hemen test bat, adibidez.

**MATERIALA**

**1. TESTUA**

Testuaren zailtasun maila kontuan hartu behar da. Zailtegi baldin bada ez dago zereginik. Gaiak, bestalde, ikaslearen esperientziarekin zerikusia izan behar du. AIZU eta HABE aldizkarietan ematen diren materialak benetakoak dira, mailakatuak eta interesgarriak.

Materialak prestatzerakoan zer ezabatu? Arazo morfosintaktikorik gabeak dira errazena eta arazo morfosintaktikoak dituztenak zailagoala.

- ...batzu politak dira. Mendi batzu politak dira.
- ...ra joan nintzen atzo. Mendinga joan nintzen atzo.

Test batean 30 hutsuneak arazo morfosintaktikodunak bada, ikaslea operazio zail baten aurrean dugu; zeren hutsuneak betetzeko eduki semantikoaz gain, bereizgarri morfologiko eta formen eta funtzioen arteko erlazioa ere kontutan hartu behar du. Zenbat hitz ezabatu? Artikulu luzeetan (bi orrialdekoetan), 30 hitz eta txikietan 15, adibidez. Tipp-Ex erabili daiteke ezabatzeko. Sortzen den hutsunean lerro txiki bat egin eta zenbakia ipini.

2. Erantsun-orria.
3. Diagrama orria. Ikasle bakoitzak bere emaitzen kontrola.
4. Hiztegi orria. Testan erabiliko diren hitzak eman daitezke.
5. Testua osatzeko laguntza.


**PROZEDURA**

Pauso didaktikoak.

a. Irakasleak giroan sartu. Testaren bezperan bertan, azalduko den problematikari buruzko hurbilpena egiten da.

b. Hiztegiaren estimulazioa. Txartel, marrazki, mimika, ekintza bidez, testuan erabiltzen diren hitz batzu atera erazi. Hiztegi orrian dauden hitzak lantzen dira.

—Hiztegiaren aurkezpena. Esanahiaren azalpena (marrazki, argazki, mimika) bidez.



—Hitz berrien erabilera. Irakasleak hiztegi-orritik aukeratuak hitzak landu ahala, hots zenbait adibide eman ondoren, harbelean idazten dira adibide baten barruan.

—Hiztegi-orria banatu eta taldeka fitxa komentatu eta adibideak eman. Hiztegi gabe, noski. Hiztegiaren lanketa bukatutakoan, hurrengo egunean testa izango dutela iragartzen zaie.

c. Hiztegi-froga. Ikasle bakoitzak bete ditzala.

d. Testua, erantsun-orria eta testua osatzeko lagungarriak.

Orain dena prets dago testari ekiteko. Behar den denbora ematen zaio ikasleari.

e. Erantsun-orria jaso. Irakasleak frogak jaso. Zuzenketa egin berak bakarrik edo ikasleekin-eta emaitzen berri eman.

J.L.



(kaleratuak)

Liburuak

---

**NAFARROAKO EUSKAL IDAZLEAK (I)**  
**Pedro Diez de Ultzurrun/José María Larrea**  
**PAMIELA, 1987**

Liburu honekin PAMIELA argitaletxeak, mende honetako Nafarroako euskal idazleei buruzko sail bati ekin berri dio. Pedro Diez de Ultzurrun eta Jose Maria Larrearen ardurapean egindako antologia honek bortz idazle aurkezten ditu, guztira, 1913tik 1934ra bitaran argitara emandako 36 idazlan ezagutzera emanez. Hauexek dituzu: Pablo Fermin Irigaray "Larreko" (Auritz 1869/Iruñea 1949), Miguel Olasagarre Zubillaga, Aita Damaso Intzakoia izenez ezaguna (Intza 1886/Iruñea 1986), Ziriako Garralda (Otsagi 1845/1930), Federico Garralda (Otsagi, 1880/1929), Ziriakoren semea, eta Blas Alegria (Lakuntza, 1883/1947).

Bilduma honen xedeak hala nola Nafarroako euskarak azken bi mende hauetan bizi izan dituen baldintzak liburuaren aintzin-solasean azaltzen dira. Aipatutako idazleen bizitzari buruzko bizpahirur datu emateaz gain, hiztegi txiki batek betetzen du liburu honen azken atala, gaurregungo irakurlearendako konprenigaitz izan bait daitezke.

Irakurlearendako zaila eskuratzea diren zenbait aldizkarietan argitaratutako artikulu literario, eta idazlan kostunbristak plazaratzen dira "Nafarroako euskal Idazleak (I)" honetan, ez bait dago horien alerik Euskal-Herriko biblioteka edo hementeroketa gehienetan. Bilduma pribatuetara jo behar izan dute apailatzaileek idazlanak biltzeko. Hala ere, Euskaltzaindiko Biblioteka eta Baionako Euskal Museoko bildumak miatu dituzte.

Iruñea, 1987

PAMIELA Argitaletxe honetako beste zenbait liburu:  
 EUSKAL MITOLOGIA (1) - Egilea; J.M. Barandiaran  
 ZIKOINEN KABIAN SARTUKO NAIZ - Idazlea; Joxemari Iturralde  
 HAUR FOLKLOREAREN BILDUMA - Egilea; Xabier Etxaniz  
 (H)AUR BESOETAKOA - Idazlea; Jon Mirande

## nondik nora?

Une honetako euskal haur literatura aztertzeko orduan, kontutan izan behar dugu zein izan den literatur arlo honen eboluzioa gaur egunera arte. Izan ere urteetan zehar eman diren hainbat eta hainbat gertakarik eragin handia izan dute gure haur literaturan.

Euskal haur literaturaren jatorria —literatur idatziari gagozkiola—, 1804an, Vicenta Moguelek idatzitako *Ipuin onac* liburuan koka genezake. Esoporen alegiak dira eta hau baldin bada hemen idatzitako lehen haur literatur liburua, Europa mailan XVII, mendean hasita herri ipuinak, aldizkariak, *Robinson Crusoe* (1719) eta beste hainbat urrats emanak dira.

XIX. mende honetan finkatuko da haur literatura munduan, Andersen, Grimm, Lewis Carroll, Jules Verne, Collodi, Stevenson... mende honetako izen ospetsuak ditugu. Euskal Herrian Vicente Moguelek batera, Juan Jose Moguel eta Agustin Pascual Ugalde Iurriaga aipa daitezke. Pedagogi mailan literaturak gero eta pisu handiagoa hartzen duenez, arreta gehiago du literatur arlo honek. Mende honen bukaeran erromantizismoaren eraginez abertzaletasuna sortzen da, eta Euskal Herrian, XX. mendearen hasieran aurrerapausu handiak ematen dira hori dela eta. Izan ere XX. mendea hiru zati nagustian banatzen da: gerra aurrekoa, 39-65 urtetako epea, eta 65tik orain arte.

Lehenengo epean, 1939 artekoa, euskal haur literaturaren oinarriak jartzen dira:

—Folkloretik hartutako alegi eta ipuinak lantzen dira.

—Bertako produkzioa ematen da.

—Kanpoko liburuak itzultzen dira.

Gerrak ordea, pikutara botako du oinarri hau eta gerraosteko tarte luze horretan ezer gutxi egin ahal izango da (Etxaidek eta iparraldeko baten batek bakarrik argitaratuko dute).

1965ean edo, askatasun gehiago dagoela eta, Mensajero argitaletxe erlijiosoak haur liburuak kaleratzeari ekingo dio. Mende hasieran bezala, behe behe-tik hasi behar da haur literaturaren edifikazioa eraikitzen. Helburu pedagogikoa ere (euskara ikasteko eta lantzeko) oso garrantzitsua da. Antzerkia eta pertsonaien biografien alboan haurrek beraiek sortutako lanak aurkitzen ditugu.

Franco hil ondoren askatasun handiagoa dagoelarik, izugarrizko mugimenduak sortzen dira eta jendeak euskara ikasi nahi du. Ikastolak finkatuz doaz eta helduen euskalduntzea ere ematen da. Testuak behar dira, irakurgaiak... eta hemen ez dago infrastruktura bat behar guzti horiei erantzun egokia emateko. Kanpoko argitaletxe batzuk argitaratuko dituzte liburuak euskaraz —batzutan hemengo batekin bat eginik—.

Hamarkada honen hasieran Erein eta Elkar argitaletxeak jaioko dira eta bai batak bai besteak haur literatura eta testu liburuak bultzatuko dituzte. Bi zutabe horietan oinarriturik altzatuko dira argitaletxe biak. Lehendik zegoen Hordago argitaletxeak aldiz, haur sail bat plazaratuko du urte hauetan.

Momento honetatik aurrera euskal haur literatura goruntz dihoan itxaflero bat da. Sailak etengabe ari dira sortzen

eta sendotzen. Tiradak ere nahiko handiak dira eta ikastoletatik bai euskalduntzen ari den jendearengandik demanda handia dago. Haur literaturaren «boom»a dela esan dezakegu. Mundu mailan duela 20-25 urte emana, estatuan eta Euskal Herrian azken bost-hamar urteotan. Kalitatea ere, kantitatearekin batera hobetzen ari dela dirudi, eta onartu behar da une honetan bertako argitaletxeek gain (Mensajero, Erein, Elkar eta Pamiela) kanpokoak ere oso interesaturik daudela euskal liburuetan, eta izen batzu aipatzekotan S!M., Anaya eta Alfaguara esan daitezke, dagoeneko edo bestela berehala hasiko direnak euskaraz argitaratzen.

Badirudi beraz, oso ondo ari garela, euskal haur literatura oso momentu onean dagoela eta halaxe da, baina hala ere badaude puntu batzu —puntu beltz batzu— euskal haur literaturan:

## 1. IRAKURLEEN EGOERA

Agian idazleona ere hemen bertan sartu beharko genuke. Idazleok erabiltzen dugun euskara, hortik zehar dauden erdarakadaz betetako liburuak, huts gramatikalak edo inprentazko hutsak beraiek ere kontutan hartu beharko genituzke, irakurleen euskara hartzen dugun bezala. Askotan eta zenbait faktorek eraginda desoreka itzala dago haurrak ulertzen eta nahi duenaren artean. Gaia eta hizkuntzaren artean, alegia. Bestalde egoera hau dela kausa testuen pobrezian eror gaitezke eta hori ere oso arrisku handia da.

Denok dakigu zein den herri honen egoera linguistikoa eta horregatik hain zuzen saiatu behar dago egoera hori normalizatzen. Beste arazo bat da erdaraz Itzul sailekoak irakurtzen dituen eta euskaraz Perkaxen dabilena.

## 2. INSTINTOA NAGUSI IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEEN ARTEAN

Tentu-marrakzi erlazioa, marrakia eta haurraren adinaren arteko egokitasuna... hizkuntza, gaia eta estiloaren arteko oreka,... haur literaturak dituen "zailtasun" hauek intuizioz gainditzen dira eta batzutan oreka edo egokitasuna ematen bada, beste askotan desfaseak suertatzen dira.

Oso gutxi aztertu dira goiko aspektu horiek eta normalean ilustratzailea eta idazlea bakarrik daude, oinarri teoriko handirik gabe. Eskertzekoa da argitaletxe handi batzutan dauden arduradunen laguntza, hala ere asko dago egiteko arlo honetan.

## 3. ERAKUNDE PUBLIKOEN JARRERA

Haur literatura da euskal literaturan, hoberen dagoen arloa eta horregatik behar bada haur literatura da euskal literaturan baztertuena erakunde publikoen aldetik. Eusko Jaurlaritzak konbokatzen dituen sari eta beketan ez da azaltzen, literatur lehiaketei dagokienez hiru lehiaketa soilik daude arlo honetan (hauetako bi erakunde pribatuek deiturik), ez da liburutegi berezirik bultzatzen haur literatura lantzearen... Badirudi goiko erakunde horientzat haur literatura SUBJENERO bat dela. Edo —eta ondo

pentsatu nahi dut— ondo dagoen arlo bat denez (?) ez dela laguntzari behar, idazleok asko irabazten dugula eta ilustratzaileen lana ederki ordaindurik dagoela.

Bestalde euskal haur literatura bultzatzeko, plazaratzeko edo kanpoko herrialdetan agertarazteko asmorik ere ez da ikusten. Euskal ilustratzaileen erakusketak bakarra *Jakin* aldizkariak eta kutxa batek antolaturikoa dugu. Ez dago liburu bat bertako ilustratzaile eta idazle lanak azalduz.

## 4. EUSKAL LITERATURA ITXITA EGOTEA

Itxita diodanean zera esan nahi dut, ezezaguna izatea, bakar batzuk ezagutzen dugula eta horiek inplikatuok gara. Fenomeno hau haur nahiz helduen literaturan ematen da eta egia esan azken urte bi hauetan pausu handiak ematen ari dira zentzu honetan, baina hala ere euskal literatura ez da ezaguna Euskal Herrian ez kanpokaldean ere. Eta honen zergatia ez dugu bilatu behar besteen jarreran, guk geuk hasi beharko genuke hemen, gure inguruan, zabaltzen euskal literatura (komunikabideetan, dendetan, eskoletan...), honetaz gain hizkuntzak, euskarak, muga handia suposatzen du eta egia da ere kanpoan jende askok ez duela onartu nahi herri honen bere kultura duela eta kultura hori desarroilatzen ari dela.

Dena dela, berriro diot, gu gara katea, aislamendu hau, puskatzen hasi behar dugunok.

## 5. IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEAK EZAGUTARAZI BEHARRA

Aurreko bi puntuei helduz, eta aurrekoaren jarraipen moduan. Izan ere haur literatura fenomeno bezala, eta liburua ikutzen den objekto hori, haurrari —populazioari— hurbiltzen ahalegindu behar genuke eta horretarako oso kome-nigarria izango litzateke idazle eta ilustratzaileak ezagutaraztea. Horretaz gain, haurraren pertsona horiekiko edo beren lanarekiko interesa lortu behar da.

Kanpora begira gainera, erdal jendearen artean euskal literaturaren informazioa —eta euskaldunon artean ere bai— zabaltzea komeniko litzateke. Argi eta garbi bait dago honetaz bizitzeko kanpoko merkatura ere zabaltzeko behar dela eta bestalde normalizaziorako bidea ere hortik doala.

## 6. PROSA, JAUN ETA JABE

Egia da prosa dela gehien erabiltzen den jeneroa. Ni neu oraintxe bertan ere prosa erabiltzen ari naiz. Baina normala ez dena zera da, poesi, antzerki eta saiorik ez egotea euskal haur literaturan. Helduen literaturan ere gertatzen den bezala, prosa besterik ez da lantzen haur literaturan. Ipuin eta nobelak. Baina nik dakidanez azken bost urtetan ez da poesi liburu bat bera argitaratu, eta saioak —biografiak, e.a.— eta antzerki lanak eskuaren behatzekin kontatzen dira. Honetaz gain —eta nik uste arazo ekonomikoengatik—, oso komiki gutxi argitaratzen dira euskaraz eta hau nahiko harrigarria da bertoko ilustratzaile eta komikigileen maila altua kontutan hartzen badugu.

Aldizkariak ere, aldizkari pare bat besterik ez dugu eta horiek ere doi doi mantentzen direnak.



# Euskal haur literatura

## 7. TEMATIKA MUGATUA

Garbi dago haur literaturan edozein gai trata daitekeela, kontua da nola tratatu gaia. Baina euskal haur literaturan badaude zenbait gai ikutu gabe, hala nola errealismo soziala, familiaren arazoak, bortxakeria, marjinazioa... edo joku liburuak beraiek ere. Badaude itzulpen batzu, baina hemen bertan ia ez dira ikutzen gai hauek, normalean abentura, umore, fantasia eta liburu historiko-biografikoak idatzi dira euskal haur literaturan.

Behar bada oraindik ere hasten ari garelako, haur literaturak oso helburu pedagogikoa duelako edo auskalo zergatik, agian herri honen egoera politiko-sozialak, erlijioak eta honelako faktoreek ere eragin handia izan dezakete.

Kontua da gizartea aldatzen ari dela eta literaturan aldaketa hori eman behar dela.

## 8. EUSKAL HAUR LITERATURAREN BEHARRAK AZTERTU

Aztertu beharko litzateke zer lan behar diren euskal haur literaturan, zer liburu itzuli behar diren edo nola azal genitzakeen hemengo ilustratzaileak; aztertu beharko litzateke literatura eta didaktikaren arteko erlazioak, aztertu egindako lanak, zer nolako obrak sortu/itzuli diren, beraien hutsak eta aziertoak.

Euskal haur literaturaren egoera aztertu beharko litzateke planifikazio bat egiteko, bizitzasun handiko literatur arloa izan dadin, laguntzak emateko edo enkarguak egiteko.

Ahozko literatura haurren mundura eramateko eta beste mila gauza egiteko. Hots, haur literaturaren oinarriak sendotzeko.

## 9. ARGITALETXEEN PLANIFIKAZIOA

Hasieran egon ziren saio batzu argitaletxe ezberdinen artean. Gaur egun baikoitzak bere bidea jarraitzen du eta hau onuragarria edo kaltegarria izan daiteke. Onuragarria argitaletxeak zirikatzen dituelako, egoera normala delako, baina herri honen egoera ez da normala eta horregatik hain zuzen koordinatu beharko genituzke geure indarrak, alferrikoak izan ez daitezen eta pobretxu handiena lortzearen.

Argitaletxeen barruan ere, batzuk badute planifikazio bat eta beste batzuk liburuak etorri ahala ateratzen dituzte. Hala ere urtean zehar dendetan, erosle arruntak izugarriko hutsuneak nabaritzen ditu —denborazkoak batzu, adinekoak beste batzu—. Nik uste dut arlo honetan aurrerapausuak ematen ari badira ere, badagoela konpontzekorik.

## 10. HEZIKETA ETA HAUR LITERATURA

Azkenik, eta ez azkena, haur literatura eta heziketaren arteko erlazioak ikusiko ditugu. Haur literatura oso loturik agertu da irakur eta idazmenarekin, baita hizkuntzaren jabetzarekin ere, eta urte askotan loturik ez ezik, helburu pedagogikoaren pean egon da.

Orain badirudi egoera aldatzen ari dela eta literaturtasunak bere autonomia duela, hala ere autonomia izanda ere haur literatura oso aprobezagarria izan daiteke.

Arazoa zera da, Irakaslego Unibertsitate Eskoletan —teorian irakasleak prestatzeko zentruak— ez dela ikutzen haur literatura, edo oso ginetik aztertzen dela.

Honekin loturik ikerketen falta nabarmena dugu. Bai haur literaturaz bai euskal haur literaturari dagokionaz. Argitaratzeko dago euskal haur literaturaren historia bat, esaterako, edo umorea euskal haur literaturan (duen garrantzia, egoera farregarriak...) eta hainbat eta hainbat lan.

Oraindik ere haur literatura ez da seriotan hartzen, elementu independente bezala, garrantzi handiko elementu bezala. Alde honetatik, aipagarria da Erein argitaletxeak sortutako "Iturriaga saila" eta *Isilik aldizkarian egin den lana*.

*Bestalde eta heziketa-haurra-liburua kate honetan oso leku garrantzitsua dute (izan beharko lukete?) liburutegiek. Haurra eta liburua topaketa eman dadin, baldintza egokiak jarritz, haur liburuaren erakusleku gisa, animazio leku moduan... liburuteiek oso paper garrantzitsua dute —baina zoritxarrez "Izan beharko lukete" esatera beharturik gauden—.*

*Eta honela, ozenki egindako erreflexio hau espero dut lagungarri izango zai-gula, euskal haur literaturaren egoera eta norabidea zehaztea zaila bada ere, saiatu gara datu batzu azaltzen nondik nora goazen jakin dezagun.*

**Xabier Etxaniz**

Gasteiz, 1987ko Urriak 15.



# 1987.eko ARGITALPENAK

## LAGUN ETA BI LAGUN

Egilea: Xabier Mujika  
Marrazkiak: Jon Arretxe  
Saila: TXANPA/Orrialdeak:59

Liburu honek, 1986.eko I. BILINTX literatur lehiaketan 2. saria jaso du. (A sailean)

GAIA: Liburuska honetan bi mutikoren arteko istorioa kontatzen da. XABIER, baserri giroko mutiko bat dugu eta IKER, berriz, kalekoa. Buruz argia izan arren, Xabierrek eskolan zenbait iseka eta mesprezu jasan beharko ditu. Eta ipuinaren lehen zatian Iker izango du kontrariorik handiena. Beranduago ordea, istripu bat dela-eta gauzak zeharo aldatuko dira.

LAGUN izeneko Xabierren zakurra ere protagonista bihurtzen da ibai batean Ikerrek izaten duen istripu honetan. Eta ipuinaren bigarren zatian lagun-giroa da nagusi, eta ez haserrea eta liskarra lehen zatian bezala.

Ipuinaren azkenaldean, berriz, ITZIAR agertzen da, eta neskatxa honek pizten du maitasunaren lehen irrika bi protagonistengan. Bai eta zeloak ere Xabierrengan...

## BOSTAK LARRI

Saila: BOSTAK (9-11 urte)  
Egilea: Enid Blyton  
Itzultzailea: Margarita Altuna  
marrazkiak: J. Correas  
Orrialdeak: 182

Enid Blytonen bost pertsonaia ezagunen abentura berri bat da eskaintzen zaiguna, sail honetako beste liburuetan agertzen direnen molde beretsukoa.

Lau neska mutilak eta Tim zakurra oporretara doaz aintzira baten ingurura. Rikardo izeneko mutiko batekin topo egiten dute eta inguru hartan misterio harrigarriren bat badagoela konturatzen dira. Dick desagertu egiten da, bahitu egiten dute. Mila gorabehera eta abentura jasan beharko dute Julen, Gorka eta Anek beren lagunaren arrastoa atera eta hura askatzeko. Azkenean lapur eta gaizkile batzuekin topo egiten dute, benetakako polizilana eginez.

Liburu entretenigarria era honetako abenturak atsegin zaizkientzat.

## IBAI ALBAITARI


Egilea: Jesus Ballaz  
Itzultzailea: J. Ormazabal  
Marrazkiak: M. Sitjar  
Saila: IBAI (7-8 urte)  
Orrialdeak: 26 (koloretan)

GAIA: "Ibai" ametsetan Afrikako sabanako al baitari bihurtzen da. Han animaliak eta beren ohiturak ikertu eta gaixotutako piztiak sendatzen ditu.

Lehoieme zuritu baten bila abentura beldurgarriak pasa ondoren, honekin topo egiten du, eta tranpa batez harrapatu ondoren, itxitura batera eramaten dute bala bat atera eta sendatu arte.

Sail honetako ale guztien antzera, honetan ere, marrazkien eraginez, neska-mutikoak, giro eta egoera berezietan murgilduko dira IBAIren ametsen bidetik.

Irakurketaren lehen urratsetan haurrari laguntzarren, *kali-grafi-hizkia* erabiltzen da.



## KARRERA EGUNA

Egilea: Inaxi Lazkano  
marrazkiak: Juan Sagastizabal  
Saila: TXANPA (9-12 urte)  
Neurriak: 18x11 zm.  
Orrialdeak: 67

Mutil gaztetxo bati bizikletarako gogo txiki-txikitatik nola sortu zitzaion eta gero eta gehiago afizio horretan murgilduz aurrera nola egiten duen kontatzen da errelato honetan.

Bizitza bizikletaren bidez deskubritzen du: etxeko harremak, lagunak... denari aurre egin beharko dio. Arazo eta zailtasun handiekin topatu arren, bere bideari jarraituko dio duen ilusioari esker.

Bizikleta mundu horretan sartuz, karrera egun bat kontatzen da, non protagonista irabazle gelditzen den. Hori ez zaio ustekabea eta kasualitatez gertatuko; manibel eta pedaletan katigaturik indar eta ahalegin bizia jarri behar izan du garaile geratzeko.

Egileak oso hurbiletik bizitako esperientzian oinarriturik, errelato hau borobildu du bere anaia zenari eskeinitako omen gisa.

## BERTSO BILDUMA, NEURRIKA

Egileak: Kontxi Begiristain/Antton Cazabon  
Marrazkiak: Andoni Odriozola  
Neurriak: 24x17 zm, (Rustikaz)  
Orrialdeak: 247

Izenburuak berak dioen bezala bertso doinu eta neurri ezberdinen bilduma duzu hau, Oiartzungo ikastolako "Bertsolari eskolan" urtetan zehar biltzen eta sailkatzen joan ondoren lortutako fruitua.

245 orrialdetan zehar koplak txikiak, handiak, seiko handia, seiko zaharra zortziko txikia, zortziko handia, zortziko zaharra, hamarreko txikia, hamarreko handia, hamabiko handia, hamabiko zaharra, bederatzi puntukoa eta doinu bereziak 30etik gora aurkituko dituzu.

Lan mardul eta bikaina izanagatik, egileek osatzen joateko lana dela diote.

Aproposa Bertsolari Eskoletan, ikastoletan eta edozein bertsozalerentzat, doinuak lantzeko, bertso mota ezberdinak neurrika ezagutzeko, sailkatzeko eta ikasteko.

# Haur literaturaren txokoa

KUXKUX 4 (testu liburua) 1. Atala  
Esperientzi Arloa (O.H.O. 4.maila/D eredu)

KUXKUX liburu sailari jarraipena emanen oraintxe argitaratu berria da KUXKUX 4.ren lehen atala. Aurreko KUXKUXetan bezala *Esperientzi Arloa* lantzeko materiala aurkezten da liburu honetan eta aurreko KUXKUXen ildoari jarraitzen dio.

KUXKUX 3.ean *herria* interesgune nagusia zen bezala, oraingo honetan *eskualdea* hartzen da interesgune garrantzitsutzat eta horren inguruan kiribiltzen dira gai guztiak. Gai hauek azpiataletan banaturik daude eta ia beti azpiatal hauekako bakoitzak badu bere izakera propioa.

Lehenengo atal honetan lantzen diren gaiak honako hauek dira:

## 1. Gure eskualdea: geografia eta ingurune fisikoa.

### 1.1. INGURUKO HERRIAK: ESKUALDEA

### 1.2. GURE ESKUALDEA MAPA BATEAN MARRAZTEN

### 1.3. ORIENTATZE ARIKETAK

### 1.4. GURE ESKUALDEA EZAGUTZEN

### 1.5. GURE ESKUALDEKO URAK: IBAIAK, ERREKAK...

### 1.6. KLIMA

## 2. Eskualdeko paisaia: landaredia.

### 2.1. ERLIEBETIK PAISAIARA

### 2.2. URA

### 2.3. ARGIA ETA BEROA

### 2.4. LANDAREAK EZAGUTZEN

### 2.5. LANDAREEN BIZI FUNTZIOAK

### 2.6. NEKAZARITZA

## 3. Inguruneko animaliak.

### 3.1. ANIMALIEN SAILKAPENA

### 3.2. ANIMALIEN ELIKADURA

### 3.3. ANIMALIEN UGALKETA

## 4. Gizakien elikadura.

### 4.1. GIZAKIEN ELIKADURA

### 4.2. JANARI MOTAK

### 4.3. OTORDU OREKATUAK

### 4.4. GURE GORPUTZA

Bigarren atalean berriz (Urtarrilean argitaratzeko asmotan) honako beste gai hauek landuko dira:

5. Gizakiak bere ingurua zaindu egin behar du.

6. Gizakiak lan egiten du.

7. Gizakiak harremanak ditu inguruko jendearekin.

8. Euskal Herria (Lehen urratsak).

KUXKUX 4 bi atalen osagarri eta gida izango den Irakaslearen **gidaliburua** berehala argitaratzeko asmotan gara.

Liburuaren eraketa eta helburu nagusiak KUXKUX 3.ren berdinak dira:

— Irakurgaiak motzagoak dira, baina oraindik ere gai bakoitzaren hasieran jartzen dira.

— Elkarrizketa eta ahozko espresioa lantzeko ariketa mordo bat proposatu da eta idatziz egitekoak KUXKUX 3.an baino ugariagoak dira. Elkarrizketa, idea-eztabaidatze eta trukatzeari garrantzi berezia ematen zaio.

— Metodo zientifikoan abiatzea helburu nagusitzat hartzen da.

KUXKUX 4.ren prestaketan Gipuzkoako eskola desberdinetan Erdi Zikloan lanean diharduen zenbait irakasle aritu da buru-belarri, eta guztien koordinatzaile gisa, Jesus Mari Olaizola, "TXILIKU".

(Argibide gehiago nahi duenak dei beza ELKAReko telefonora).

**elkar** s.a.

*HIZKUNTZA 8* izeneko liburu honekin bukatzen da O.H.O.ko Zipriztin-Hizkuntza metodologia.

Liburu hau O.H.O.ko 8. mailarako prestatua dago eta bertan ardatz bezala jenero literario hauek lantzen dira: narrazioa, nobela, entseia, erromantzeak, kazetaritza (egunkaria-aldizkaria-irratia-telebista), poesia eta antzerkia. Ikasgai bakoitzean atal hauek lantzen dira:

— *Mintzamina*: Hitzak dioen bezala ahohizkuntza hobetu nahi da atal honen bidez eta horretarako proposamen, ariketa eta teknika ezberdinak eskaintzen dira.

— *Irakurketa-Idazketa*: Jenero literario ezberdinetako zatiak eskaintzen dira irakurgai bezala; zati horien testu azterketa egiten da eta azkenik idaztera bultzatzen da, ortografi arauak ere ematen direlarik.

— *Hiztegia*: Hemen lexikoa hobetu nahi da eta atzizkiak, aurrizkiak, hitz elkarketak, hitz konposatuak etab. aztertzen dira.

— *Hizkuntza aberasten*: Atal honetan hizkuntzaren alderdi gramatikala aztertzen da: deklinabidea, aditza, sintaxia, perpaus mota ezberdinak etab.

— *Bertsolaritza*: Bertso mota ezberdinak eta zenbait bertso zahar ere aztertzen da, bertsolaritzako teknikak ikasiz.

— *Espresio teknikak*: Gaurko gizartean defenditzeko interesgarri den hainbat teknika ezberdin ikutzen da hemen: debate bat nola antolatu, paper ofizialak-txekeak-telegramak nola bete, hitzaldi bat nola eman, laburpenak egiteko teknikak, irratsaio bat nola prestatu, interview bat nola egin...

Hau dena 8 ikasgai zabal bezain luze eta luze bezain zabaletan eskaintzen da. Hizkuntzaren irakaskuntza aspergarria gerta ez dadin tartean esaera zahar, txiste, pasadizo, bertso, olerki eta beste zenbait bitxikeri ere eskaintzen da.

Lehenengo liburuan, marinel bihurturik, itsasoan ikusi genuen LONTXO ("Bazen behin marinel bat"), bigarrenean Parisen turista bezala ("Hain da triste la vie du touriste"), eta hirugarren honetan baserriko lanak utzi eta eskolara joango da. Txikitan ikasi gabe utzi zituen gauzak ikasi nahi ditu.

...Frantziako Historia eta Itsasoa dira berari gehien gustatzen zaizkion gaiak. Frantses apur bat jakitea ere gustatuko litzaioke. Andereñoak "Altxorraren uhartea" eta "Hamabost urteko kapitaina" liburuak uzten dizkio, irakurriz gauza berriak ikas ditzan. Andereñoaren lagun handia egiten da, baina Ania da, Lontxok gehien maite duen neska.

Egun batez, andereñoak, eskolara nahi zue-  
nean joateko baimena eman zion, eta orduan, gauza harrigarria, eskolako lagunak hasi sitzaizkon Lontxori baserrira joaten. Gero aulki batzuk eta arbel bat eraman zituzten baserrira. Hantxe ematen zituzten Natur arloko klaseak, baita esperimentuak egin ere. Lontxok baimena eman zien umeei mindegietara, ikuilura eta baratzara sartzeko. Umek barazkiak landatu eta oiloak eta untxiak ere hazi zituzten. Eta haur haiek, Lontxorekin batera, BEHEKO ESKOLAREN, kalekoa, eta GOIKO ESKOLAREN, baserrikoa, berri ikasi zuten.





## EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA

### HIRU ERREGEEN MAHAIA

Saila: SOR/Orrialdeak: 134  
Egilea: Joxe Erzigongo  
Marrazkiak: J.M. Telleria

Liburu honek, 1986.eko I. BILINTX literatur lehiaketan 2. saria jaso du. (B sailean)

GAIA: Gazte taldetxo baten arteko gertakizun erreal bat da Erzigongoak liburu honetan kontatzen diguna.

Lau lagun dira, eta zakurrarekin bost, protagonistak, denak mendi eta naturazaleak. Jakin badakite, eskolatik eta komunikabideetatik, zein den Euskal Herriko mendirik garaiena eta haren gailurra zapaltzeko irrika bizia sortzen zaie. Azkenean, oztopo asko gainditu ondoren, tontorrera igotzea lortzen dute.

Txoko berriak ezagutzuz, denak benetakoak, eta abentura-txoren bat edo beste tartean, umore onez eta lagun giroan egingo dute beren ametsetako ibilaldia.

Nobela bat baino gehiago mendi-ibilaldi baten kronika bizia dela obra hau esan daiteke.

### AZKONARREN LAGUNA

Egilea: Aitor Arana  
Marrazkiak: Daniele Colombo  
Saila: SOR/Irrialdeak: 127

Liburu honek, 1986.eko I. BILINTX literatur lehiaketan 1. saria jaso du. (B sailean)

GAIA: Abandonaturiko etxe zahar batean daukate Aitzol mutikoa animalia baten gisako tratua jasotzen duelarik. Zorigaitz baten ondorioz munduratutako mutikoa dugu eta bere bizitza osoan jarraituko dio zorigaitzak, nahiz eta preso dagoen lekutik askatzen duten eta zibilizazioarekin harremanetan sartzan den. Ez du azken onik izango Aitzolek. Beste bi historia, nahiko garrantzak eta bortizkeriaz beteak hauek ere, kontatzen dizkigu egileak Aitzolen historian txertaturik.

Oso bide gogor, gordin eta ezohizkotik zehar eramaten ditu legazpiar idazle gazte honek bere pertsonaiak. Eta obra osoaren atzean izpiritu txiki, sumagaitz eta iheskor bat ageri da: ...azkonarra.

### SIRIMIRI

Esperientzi arloa. "B" Eredua.  
Saila: testuliburua (3. maila)  
Egileak: Belen Baztarrika/Iñaki Etxezarreta  
Marrazkiak: Luis Astrain

Argitara berria den SIRIMIRI testuliburua proiektu osoago baten atala besterik ez da. ELKARrek Erdi Zikloan eta B erduan ari diren irakasleen eskakizun bati erantzun nahi dio proiektu honen bitartez. Hain zuzen ere, erdara ama-hizkuntza duten ikasleentzat zuzendutako proiektua da, nahiz eta D eta B ereduak maila berean dituzten eskoletako irakasleek material hau oso erabilgarri bezala har dezakete D eredurako ere. SIRIMIRI SAILAK Esperientzi Arloa oinarritzat harturik, irakurgai liburua eta Hizkuntza Arlorako beste bat ere argitaratu du. Proiektu honek metodologia bizia eta ekintzailea planteatzen du, azken arteotan Esperientzi Arloan eta Haur Literaturan eman diren inobazio nagusiez baliaturik.

SIRIMIRI Saileko liburuek arreta bereziaz zainduko dituzte euskararen tratamendua eta irudi-idatzi arteko oreka. Kontuan izan Erdi Zikloan irakurketa-idazketa finkatu behar dela eta, bestalde B ereduko euskara maila bizkortzen segitu behar dela. Horregatik, argazki eta ilustrazioek lagunduta, euskarazko testu idatzia motibagarria gertatzen da, ikasleen ekintza eta lan gogoia bultzatzeko.

Kalitatezko euskalduntzearen apustua egin nahi du SIRIMIRI proiektuak.

### JOKOZ KANPO

(TXANPA saila: 9-12 urte)  
Egilea: Manu Lopez  
Marrazkiak: Erramun Landa  
Orrialdeak: 79

GAIA: Manu Lopez idazle gazteak futboleko jokatzeko amorratzen dagoen MARTA izeneko neskatila bat hartu du protagonistatzat liburuska hau idazteko. Bere ametsa bete ahal izateko zailtasun handiekin topo egingo du Martak, izan ere jende askok ez bait du begi onez ikusten neskek futboleko ibiltze hori. Eskolako mutikoen barre eta iskei jaramonik egin gabe, eta bere anaia futbolariaren laguntzaz, azkenean neskek mutilen kontra partidu bat jokatzeko lortuko du martak.

Futbolari famatuaren jainkotasuna desmitifikatzen saiatzen da egilea, eta neskek futboleko jolasteko duten eskubidea defendatzen. Telebistatik ematen ari diren futbol partidu baten zatiak tartekatzen ditu egileak obraren zehar, liburuari orijinaltasun gehiago emanaz.

Ilustrazioari dagokionez Erramun LANDAREN irudimenak eta ironiak sekulako bizitasuna ematen dio liburuari.



## HASIERA ZIKLOA

### IRAKURGAIK

#### *Txori saila:*

- MARGOAK. Asun Balzola
- ZENBAKIAK. Asun Balzola
- ITZIAR ETA ANTTON. Asun Balzola
- TXOMIN ETA TXOMINTXO. Asun Balzola

#### *Kikilikon:*

- KIKILIKON 1
- KIKILIKON 2
- BATELTXO BAT KULUNKAN
- LEKEITIOKO PLAZAN

### EUSKARAZKO LAN-KOADERNOAK

#### *Idatz eta marraz:*

- IDATZ ETA MARRAZ 1
- IDATZ ETA MARRAZ 2
- IDATZ ETA MARRAZ 3
- IDATZ ETA MARRAZ 4

## ERDIKO ZIKLOA

### *Birigarro saila:*

- AINARA ETA HODEITXOA
- Asun Balzola

### *Siberia treneko ipuin eta kantak:*

- TXITOEEN ISTORIA
- Bernardo Atxaga
- ASTO BAT HIPODROMOAN
- Bernardo Atxaga
- JIMMY POTXOLO
- Bernardo Atxaga
- ANTONINO APRETA
- Bernardo Atxaga

### *Maria Goikoarenak:*

- IPURDIAN BOST LETRA
- Anjel Lertxundi
- JANDA GERO MAJADERO
- Anjel Lertxundi
- ARTILLERO DALE FUEGO
- Angel Lertxundi

### *Maria Goikoarenak eta bi:*

- TXIMINITIK GORA
- Anjel Lertxundi
- AUSKALO MENDIAN
- Anjel Lertxundi
- TITIRITERO TITIRIMUNDI
- Anjel Lertxundi
- ELEGANTZIA FRANTZIA
- Anjel Lertxundi

### *Ziripot saila:*

- ERNIOKO ZIRIPOT
- Asentxio Hondarzabal
- CHUCK ARANBERRI DENTISTA BATTEN ETXEAN
- Bernardo Atxaga
- KIRTEN URDINETAKO ARMAIRU ROXA
- Mertxe Ezeiza

### *Ipurbeltz euskal komikia:*

- IPURBELTZ ALDIZKARIA

### *Ipurbeltzeko ale bereziak:*

- 3 SUDURLUZEAK. SPRAY-EN MISTERIOA
- ERREKA MARI
- IKER ETA IXONE. ZAHAGI-URREA
- TOM ETA WANDI
- 3 SUDURLUZEAK. BALOIAREN MISTERIOA
- ZEZENA PLAZAN
- DOKTORE SALBATORE APAIN BEZAIN DOTORE
- PRINTZE TXIKIA
- IPURTARGI. HONDARREZKO GAZTELUA
- IPURTARGI. TXORI TXIKI POLIT BAT

### *Auskalo saila (igela):*

- TRISTEAK KONTSOLATZEKO MAKINA
- Anjel Lertxundi
- PORTZELANAZKO IRUDIAK
- Iñaki Aldai
- GIZON KABALEN PIURAK
- Anjel Lertxundi
- HOLA HALA BEHIN
- Pellomari Añorga
- ISU, HAGINIK EZ ZUEN MARRAXUA
- S. Calleja, J. Kortazar
- TIO XENTIMO
- Pellomari Añorga
- ALEGIAK, SUDUR ONDOAN BEGIAK
- J. La Fontaine
- ASTO BONBEROREN LEHENENGO ABENTURAK
- Pellomari Añorga
- MARTINELLOK EZ DU KUKURIK ENTZUTEN
- Pako Aristi
- PATXI TRUMOIK LETRAK IKASI NAHI DITU
- Joanes Urkijo
- AMERIKARIK EZ DAGO
- P. Bichsel

# (KALERATUAK)

- MARTINELLO ETA SEI PIRATA
- Pako Aristi
- LIERNI
- E. Casaponce
- PATXI ETA TXORIAREN BAHIKETA
- Joanes Urkijo
- HARKAITZ, ELURRETAKO HAURRA
- Jesus M.<sup>a</sup> Arrieta
- DIRUA NEURTZEKO ONTZIA
- Jose Arratibel
- MARI XOR ETA BESTE
- Jose Arratibel
- ZAZPI PIRATA BALSABATEAN
- Pako Aristi

### *Komiki liburuak:*

- JUSTIN HIRIART. ITSAS GORRITAN
- Gregorio Muro
- ION ETA MIRKA. ESPEDIZIO GALDUA
- Gregorio Muro

## GOIKO ZIKLOA

### *Auskalo saila:*

- NEKANEREN MUNDUAN. Itziar Alkorta
- SUGEAK TXORIARI BEGIRATZEN DIONEAN. Bernardo Atxaga
- BI LETTER JASO NITUEN OSO DENBORA GUTXIAN. Bernardo Atxaga
- LANDETARATUAK. Jesús M.<sup>a</sup> Arrieta
- OSTIRALE EDO BIZITZA BASATIA. M. Tournier
- BAKARNEREN GAZTELUA. Joan Mari Irigoien

### *Literatura saila:*

- HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ. Anjel Lertxundi
- ELUR GAINEAN. Joanes Urkijo
- SANTA KRUZ APAIZA. Orixe
- BI ANAI. Bernardo Atxaga
- KCAPPO (Tempo di tremolo). Pako Aristi
- JOAN ETA ANE ZIGARRO BAT ERRETZEN. Ibon Sarasola
- SATURNO. Arantxa Urretabizkaia

### *Komiki liburuak:*

- HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ. Anjel Lertxundi

erein

# Andereñoa

SÃO PAULOtik

ANDEREÑOIA emakume euskalduna denez...

“MUJER VASCA IMAGEN Y REALIDAD”, gure artean dagoen liburu honek, zenbait eta zenbait burutapen sortu ditu nigan Pedagogia eta Hezkuntza gaitzat harturik.

“A todas las mujeres que a lo largo del tiempo y del espacio han ido tejiendo la historia de nuestro pueblo”; dio aurreko orrietan, eta horietako bat naizelarik, nerezat zuzenduta zela somatu dut, nereganatu... eta irakurri ere irakurri dut, behin, bi eta hiru aldiz. Eta nahiz eta hizkuntza harrotz batean egon, ongi agertzen ditu gure ezaugarri nabarmenenak. Horietako bat naiz ni ere, eta aldeketaren zirrara dastatu ondoren, aldakorak eta aldatu beharrezkoak diren ezaugarriak aldatzeko goz nago.

Beraz, hezkuntza arloan bederen, aukera ezin hobea ematen zaigu gure nortasuna mugatzen duten jokabide edo gizarte ohiturak aztertu eta onbideratzeke. Hau horrela delarik, pedagogi osasuntsu batez, goazen emakumeok bizi ditugun desorekak aha! dugun neurrian zuzentzera.

Andereñoa, hezkuntza barnean, emakume-irudi gertuenetariko bat delarik haurarentzat, irakasle hau aztertzera pasako gara bereziki.

Andereñoaren irudia aztertzerakoan, garai batean sortu zuen miresgarritasuna alde batera utziaz, badirudi bi ezaugarri agertzen direla garbi:

Euskal hizkuntzaren igoerle, bata, eta, Beste, euskal era etaohiturak bizi izan nahia gela barnean nolabait, familia giroan erabiltzen diren harremanak pedagogian bilakatuz; ikastola euskal haurrentzat bigarren etxea bihurtuz.

Hau horrela delarik, andereñoa ere, emakume euskaldunoi dagokigunez igoerle dugu, jakinik, ikasleek beragandik jasoko dituztela ez jakintzaren edukiak bakarrik, berak agertzen eta bizitzen dituen nahiak, gogoak eta mugak, baizik. Edukiak liburuetan daude eta edonor izan daiteke irakasle, trebetasunaren bitartez, baina andereñoak haurrarekin duen hurbiltasuna kontutan izanik, euskarak eta Euskadik behar dituen emakume orekatu eta askatuaren eredu beharko luke izan, euskal emakumearen izana orekatuagoa lor dadin gizarte barnean.

“Cuando se es capaz de objetivizar una realidad presentándola de forma que pueda ser reconocida por las personas que la protagonizan como algo más que la suma de las experiencias personales, entonces, si no es de nuestro agrado, es posible empezar a profundizar colectivamente en las causas, aspirando sin llegar a recursos utópicos a plantear lo que sería la realidad transformadora; sin embargo, si permanece oculta, su propia oscuridad actuará de barrera. De esta forma, aún en las respuestas que obtenga el estudio, encontraremos nuevos datos”. (11 orr. MUJER VASCA IMAGEN Y REALIDAD.- Teresa Del Valle y otros,- ANTROPHOS edit. del hombre,- Barcelona 1985).”

Goazen bada, emakume euskaldunaren estalgarriak ezabatzea eta, gordeta dauden altxor eta mugak haizertzea.

Emakume euskalduna, eta euskalduntasunaren beharra somatzen duena beraz, hizkuntzaren igoerlea da. Badirudi, hau gure ezaugarri nabarmenakoa dela. Gure gain hartu dugun ardura famili-barnean seme-alabei euskara irakastea izan da. Nahiz eta gehiengoak eginkizun kulturaltzat jo, ez dute ikusten ardura politikotzat. Dena den, eginkizun baikor eta aberatsa da, he-

riaren hitza eta hizkuntza zabaltzeko gai aurkitzen garelako batetik, eta garrantzia eta ardura handikoa delako bestetik. Ohitura da gure artean, emakumea eginkizun honetaz jabeaztea familia barnean; badirudi ohitura horrek daraman giroan eta gauzak gehiegi aztertu gabe, askotan bizi dugun egunerokotasuna dela euskararen igoerletasun hau.

Bestalde, gaur egungo hizkuntzaren une larria da agirian dagoena. Garai batean “andereñoak” sortu zuen giro abertzaleak, ez ote luke gaur egun beste erantzun jatorrago, indartsuago, herrikoia lortu behar emakume euskaldunongandik?.

Jarrai gaitzen izaten euskarak eskatzen duen erantzunaren izana, bai etxean, ikastolan, lanean, hitz batez, gizarte baina beti ere, euskal kondairaren barnean. Saia gaitzen gure hizkuntza bizitzen, aztertzen, ikasten eta ongi erabiltzen. Gehiago irakurri behar gaude, gure hizkuntzaren joskera eta hiztegia hobetu behar ditugu, pedagogiari dagozkion laguntzaileak ezagutzuz noski: ikasbideak, tresnak, moduak, erak... e. a. Eta,... berriro, ez ote ginateke erantzun zahar-berriztatua emateko gai gaur egun, gizarte astinduko duen erantzun ozen horietako bat, hainbeste andereño, hainbeste emakume euskaldunon artean?.

Emakume euskalduna naizenez, ez nuke galdu nahi guri dagokigun ezaugarria eta ez hori bakarrik, guri dagokigun erara nolabaiteko aintzindaritza bizi nahi nuke euskal kulturaren barnean, kondairaren ildoari jarraikiz, gizarte honetako zenbait eremutan, emakumeok bizi dugun bazterteza

kontutan hartuz, hizkuntzaren igortasunaz ongi jantzirik gaindi ditzakegula herri-gunean kokatuz, eta berari dagozkion kultur-ikasle eta irakasle unek biziz.

"Los datos recogidos a través de la observación participante corroboran la idea de la mujer como transmisora de la lengua en el proceso de socialización". (251 orr.).

Jokabide honen baieztapena balau-naldiz-belaunaldi datorkigunez, ager dezagun euskararen nagusigoa hainbeste hutsegite dagoen gure gizarte honetan.

Andereñoaren beste ezaugarria erabilitako pedagogi etxeak izan da, eta halako giro askatzailea izanaz (eta gela barnean beste harremanetara ohituta geundenontzat) ez gaitu gure nortasuna aztertzeraren eraman. baizik eta, ildo berean jarraitu gara bai etxean, nola ikastolan eta kalean. Hau horrela gertatzen delarik, gure izaerari aski loturik dagoen ezaugarri bat eztabaidatu nahi nuke zuekin, berak dituen ondorioak hezkuntza eta pedagogi mailan, oso garrantzizkoak iruditzen zaizkidalako. Eta berriro idatzira itzuliaz, hau irakurtzen dugu bere 18. eta 150 orrialdeetan:

"El poder se ha definido como la capacidad de decidir efectivamente sobre las personas, situaciones y cosas".

Eta aurrerago euskal emakumeari buruz hauxe dio 173 orr.:

"Su poder no lo tiene por sí misma, sino que le viene dado por otros, y en la medida en que la mujer conquiste espacios públicos, se tendería a rechazar estas vías indirectas a favor de otras más directas".

Benetan, hotzikaraz beterik uzten gaituzten hitzak dira, hitz batez, gure buruaren jabe ez garela, adierazten dutenak hain zuzen ere. Gure arteko emakumeon gehiengo ezaugarria baldin bada, andereño batek gela barnean ezin dezake burujabetasuna landu, bera, akats honetaz jabetzen ez den bitartean; bestela gauza bat izango da hitza eta, bestea ekintza. Gure buruaren jabe egiten goazen neurri berean besterik ez dugu lortuko hezkuntza askatzailea, burujabetasuna lantzen duen pedagogia bizituaz, dauden ikasleak biharko gizaki libre eta orekatuago. eginaz (emakumeari dagokionez, batipat). Beraz, burujabetasun pertsonalari dagozkion ezaugarriak aipagarrienak:

Nortasunaren garapen orekatua.

Somatzen ditugun hunkipen sakonen giro baikorren bizetza, eta.

Norberaren izatearentzat izatea.

### Nortasunaren garapen orekatua

Badaude nortasunari buruz zenbait gauza idatzita; eta ongi idatzita gainera, beraz, ez noa ni orain berriro ezer aipatzera; bakar-bakarrik esan, nere izaeran nolabaiteko ukitua agertu duten zehaztasunak adierazi nahi ditut, teoriatik egunorokotasunera iraganaz, eta andereñoaren familia-pedagogi giro horretan jarraituz.

Bakoitzaren nortasun gunean norberaren izakera dago kokaturik; izakera horren ezaguera oinarrizkoa da, jakinduria guztia horren aberastesunera delako.

Gizaki bakoitzak bizi duen kondairaren pertsonai garrantzitsuena norbera da, hau ez da gerekoikerian hezitzea; ezta inolaz ere; izakera bakoitzaren ezaguerak edota, izaten bakoitzaren ezagueraren ezagueraren nahian gabil-tzanok, gure izatearen lehenengo eza-gutzaileak izan behar dugu, nortasunaren nagusigoa biziz; alboan dagoen edo bizi den haurrak, gazte edo nagusiak soma dezan berak bizi duen kondaira pertsonalaren gunea bera dela, berak duen izakeraren osotasun bidean pertsonai arduratsua izanaz, nortasun orekatu eta aberats batetarantz bideratuz.


Oso garrantzizkoa iruditzen zait andereñoaren jokabidea ikasle bakoitzaren nortasuna indartzera bideratua egotea. Hautzarroan eta geroxeago ere bai, askotan, besteen nahi en eta erizpi-deen gogoen baitan bizi izan gara; alboko edo nagusien kondairearen laguntzaile menperatuak bezala gure izate eta nortasunaren ezezagun eta indar-geak izanaz, eta hezkuntza menperatzaile hau arazo moralistaz beterik dagoenean, zer esanik ez, hots, norberaren izakerari begiratzea lehenengo eta, gerekoikeria dela onartzera bideratuak garenean.

Batez ere amakumeok gehiago jasan dugu geure nortasunaren ahultasuna, eta badirudi gure bizia eta hezkuntza besteei lakete egin araztean oinarritu izan dela, beti era besteen baitan, besteen kondairaren baitan. Laketasun orokorari erantzuten ohituta dago emakumea gizartean eta, hau bakoitzaren nortasunari uko egitea besterik ez da.

"Para el análisis de los valores que componen el universo de la mujer vasca que guían su comportamiento, se ha tomado como referencia la definición y el esquema propuesto por Ethel Albert para el estudio de los valores. Podemos decir que la premisa general de valor -la mujer se define en función de los demás- contiene las directrices y normativas (valores focales) que rigen las actividades y relaciones de la mujer vasca". (19 orr.).

Geure kondairaren jaun eta jabe izaten saiatu behar dugu, gizaki eta emakume bezala, bestela, ez gara inoiz heldutasunera iritxiko.

Heldutasuna!... berak dakarren ondorioa sortzailea izatearena da; gizaki bakoitzaren adimena zenbait gauzetara irekia dagoela, gizarteak ezarritako araudietatik urrunduz, mugak eta oztopoak gaindituz, helburu berriak planteiatuz eta gaur adierazten dugun izate mugatua aldatuz.



### *Somatzen ditugun hunkipen sakonen giro baikorreen bizitzea*

Andereñoa ohituta dago bihotz zirrarez eta somaketaz bizitzen gela bernean; garai bateko hoztasuna eta zigor menpean ikasten ohituta gaudenontzat erabateko giro aldaketa sortarazten du, umearen hurbiltasuna lortuz.

Andereñoak berezko pedagogi hau erabiltzen duela eta, hunkipen sakonen giro baikorreen hezitzeak duen garrantziaz zerbait esatera noa.

Bizitzan zehar, eta gizakiaren laguntzaile bezala, agertzen dirén hunkipen moeta asko dago, eta horietatik garrantzitsuenetakoak neretzat ondoan aipatzera noan hauek dira, gure nortasuna korapilatzen dutelako eta jokabide mugatzaile batetara bideratzen gaituztelako, askotan, burujabetasunerako oztoporik handienak direlarik: beldurra, kulpabilitatea eta bakardadea. Hauek bideratzen saiatu behar dugu, gure nahiak (eta gutxiago besteenak) horien menpean erabili gabe. Hezkuntza osasuntsuaren alde bagaude, haurrak eta gu bizikidetu beharrean gaude hunkipen horiekin; benetazko hunkipenak direlako eta bakoitzaren nortasunean eginkizun berezia jokatzeko dutelako. Bihozkadaz hunkiturik bizitzeko gai izan behar dugu, garapenaren bidean zehar gure izatea jazten den hunkipenez bizitzeko gaitasuna lortuz.

Beraz, egoera berri batek gehiengotan, beldur zirrara sortzen du gure barnean, hankasartze batek errudun bihurtzen gaituen bezalaxe eta zer esanik ez, besteen ez onartzeak sortzen duen bakardadearen minaz.

Ikastetxean eta gelan ematen diren harremanen bitartez bihozkada horiek bideratzen ahalegintzeko eremurik aproposenak dira, hunkipen hauek aurpegiratzen dizkiguten mugak eta oztopoak gaindituz, errudun eta beldur zirrarez josita gera ez gaitezen, izatearen garapena murrizten eta kaxkartzeko duten bihozkadak menperatzen ditugularik.

Egoera berriak sortzen duen berriztapena itxaropenak ederki gaindi dezake beldurraren galga, adimen eta bihotz zabaltzeari aukera emanaz.

Errudunak aldiz, ongi dasta dezake gero jatortasunaren poza, hankasartzeak irakatsi dion egia biziaz.

Bakardadeaz ohartzeak, ez du zerikusirik zorionarekin; izatearen oharrena da, gure nortasunak bizi dituen nahia eta ezinaren ardura daramana; ni besteengandik banatzen nauena, hitz batez, nere izatearen oharren sakona. Garapenaren zehar bakardade hau onartzeak, heldutasun bidean jartzen gaitu, gizakiaren mundu baikorra eta orekatua adierazten duelarik.

Pedagogiaren jakinduriak adierazten digu behin eta berriro saiatu beharrean aurkitzen garela, bilakabidearen zehar hunkipen sakonetan dagoen egia aurkitzen, somatzen ditugun hobespenen arabera bizitzeko gai izan arte.

### *Norberaren izatearentzat izatea*

Badirudi norberekeriaren kutsua duela esaldi honek; hain ohituta gaude entzutez (nere adinekoak batipat) besteen nahiaz ohartu behar dugula, gurea alde batera utziaz askotan, eta bizi izan dugun kristautasun giroak hau bera onartuz eta indartuz, gainera!...

Baina emakume euskaldunaren (emakumea diot zuzenki, morroitza handi goa agertzen delako bere jokabideetan) egoera orokorra ezagutuz gero, ezin dezakegu gure nortasuneko alde hau indartu besterik; gure izatearentzat izaten ahalegindu behar dugu sakonki; gure izaeraz jabetzen ez baldin bagara eta gure izatearen jabe izaten ez garen bitartean ezin izan gaitzkeela besteentzat, jakinik.

Gizaki libreen beharra du gure herriak, eta askatasun horrek baieztatzen duena gure izatearentzat izatea da; besteen izatearentzat izateak, morroitza baieztatzen duen bezala.

Eta... bukatzera noa, emakumea nainenez, andereñoaren izaerak hezkuntza mailan duen garrantzia azpimarratu nahian nabil, benetazko pedagogi askatzaile baten xedea lortu nahi badugu.

Esan beharrik ez dago, nahi hainbat zehaztasun gehi daitekeela eta "ama" irudiaren indarra familia barnean, aztertzeke dagoela oraindik.

Goazen bada, gure burearen jabe egitera, gaurko amets askatzaileak biharko izana bihur daitezten.

Arantxa UGARTETXEA



# ISILIK

Plaza Amezketan, 12 - 8.a F  
DONOSTIA

## HARPIDETZA

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Tlf. ....

Adina .....

Lanbidea .....

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu Korrontearen zenbakia .....

Sukurtsala (Ordezkaritza) .....

Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna .....

(Sinadura)

# NIRE HERRIAGATIK NIGAR EGITEZ NEKATUA

Bazkaltzeko janaririk izango ote duenaren  
hestuasunez beterik  
jaikitzen nintzen.

Etxe atariko ur zikinen  
usain kiratsua sar zedin  
etxeko atea irekitzen nuen.

Zerriek sortzen zuten izurrite eta infekziozko  
paludismoaren tapiza  
oinutsik zapaldu ahal izateko  
uxa erazten nituen.

Gosea dela medio  
«juete»aren soinura  
hurrek kantatzen zuten  
abestiak entzuten nituen.

Sukar paludikoaren eraginez  
txorabiatuak zeuden aurpegirik gabeko  
haurren begiei so egiten nien.

Behin eta berriz; INDARGE  
egunari aurre ematen zioten  
nire herriko gizon, emakume eta hurrekin batera  
isilean nigar egiten nuen.

Eta nigar, nigar eta nigar egin nuen  
nire malkoak erabakitan  
bilakatu ziren arte,  
eta erabakia, indarretan  
eta indarra mogimenduan  
eta mogimendua ekintza.

Eta hartu nituen  
nire herriko haur hil oro  
eta Osasun Ministeritzaren  
arduradunarengana eramanez nituen.

Eta hartu nituen  
nire herriko analfabeto guztiak  
eta Hezkuntza Ministeritzaren  
arduradunarengana eramanez nituen.

Eta hartu nituen  
ordaindu gabeko  
esku maskurturiko guztiak  
eta Lan Ministeritzaren  
arduradunarengana eramanez nituen.

Eta hartu nituen miseriaren  
ekonomilari diren emakume oro,  
jakinminez ziren haurrak,  
zahar nekatuak,  
bortxatuak izan ziren gaztetxoak,  
lur jota zeuden gizonak,  
eta denok tapiz handi bat osatu genuen  
Ministeritza guztien arduradunen aurrean,  
eta nahigabeen elkaturik nigar egin genuen  
eta nigar, nigar, eta nigar egin genuen  
malkoak...

erabakitan bilakatu ziren arte  
eta erabakia indarretan  
eta indarra mogimenduan  
eta mogimendua ekintzan

Eta garraisi latz batean lehertu ginen;

GORA IRAULTZA!!

# CACHETONA

Txikia, pottoka  
oin bakoitza haragi ponpoila.  
Hamairu senitartekoa  
eta anonimatotik iheska doana  
bere masail guriz.

Begiek bere aurpegiko haragia  
eragiten dute bizitasuna eman nahirik  
eta bere hortzetatik geratzen dena  
mateilaundien gerizpean  
irribarrez, galdetzeko;

Ande! ongi ali al naiz...?

# Kilkerra

Ni kilkerra naiz eta zulo eder batean nago. Pertsona handi-handi bat etorri da eta belar batekin zirikatatu nau. Neri koskilak egiten zizkidan, baina ni ez nintzen zulotik ateratzen.

Gero ura bota zidaten eta orduan, ni zulotik atera nintzen ez itotzeagatik.

Pertsona handi horrek eskutan hatu eta gartzelan sartu ninduen, gero bere etxeke terraza handian jarri ninduen eta han janari asko jarri zidan.

Halako batetan balkoitik behera erori eta...

R. AGINAGA

Herri txikiko sopranoa  
lastozko eta zinkezko etxeak, zure eskenatoki  
zolu lohitua da  
zure oinutsaren euskarri,  
bere gaina zapalduz  
bidea irekirik  
zure gorputz txikiari.

Zure abotsa entzutean  
guakamaiak harri bilakatzen dira,  
txakurrek heuren kontzertua  
isilerazten.

Urdeek mastekatzeko jaten dute  
zaratarik atera ez dezaten,  
oilarrek heuren liskarrak gelditzen  
eta oiloek arraultzeak erruten dituzte  
isiltasunean.

Zure abotsak arrantxoak  
laztanten ditu  
eta lastoak igurtzitzen.  
Irratiek isilunea egiten dute  
eta zukuek ere isilka irakiten.  
Haizerauntsi bat  
irteten da zure aho-loratutik  
eta herri guztia elkartzen zaio zure oihuari.

# Can...Dy...!

CAN...DY...!

ISILK



AZKUE BIBLIOTEKA  
EUSKALZAINDIA  
BILBO  
52345  
1988 APL. 14



# Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia  
egun eta gauez, edozein ordutan.



**E**z al duzu izan inoiz diru-beharririk arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?

Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskaintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.

Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD  
Txartela eska ezazu.



**CAJA LABORAL POPULAR**  
**LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa

